



GAI MONOGRAFIKOAK | 62

Hezkuntzaren beste hainbat erronka



**MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA**

IRAILA 2025 SEPTIEMBRE

AURKIBIDEA

Sarrera

Eskolak, eztabaida eta borroka ideologikorako ere bai

Miren Zubizarreta..... 3

1. Burokraziak hezkuntza eragozten duenean..... 5

Eskola-burokraziaren arazoa

Albano de Alonso Paz5

Irakaslea hamster-gurpilean gatibu

Tere Maldonado8

2. Teknologia ikasleen, heziketaren eta herritarren zerbitzura10

Hezkuntzaren digitalizazioa: bidegurutzean norabidea aldatu,
baina nahikoa al da?

Gorka Julio10

Teknologia pixka bat baliatzea ona da hezkuntzan, baina asko baliatzeak
ez du laguntzen

Mikel Garcia Idiakez13

3. Segregazioa, zapalketaren beste aurpegi bat16

Eskola-segregazioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Amelia Barquín16

Eskolaz kanpoko jarduerak, kohesio sozialerako aukera galdua

Mikel Garcia Idiakez23

4. Euskara bermatu eta hedatzeko premia 26

Hezkuntzaren ekarpena euskararen biziberritzean

Iñaki Iurrebaso26

D eredua baino hoberik ez dago

Mikel Basabe Kortabarria28

5. Berrikuntza ala hezkuntzaren merkantilizazioa..... 29

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza: mistifikazio pedagogiko bat

Nico Hirtt29

Marina Garcés: «Ikaskuntza egoerara moldatzeko malgutasunera
murriztu nahi da»

Rodrigo Santodomingo34

Barrainkua 13, 6.

48009 BILBO

fundazioa@ela.eus

[@mrafundazioa](https://www.mrafundazioa.eus)

www.mrafundazioa.eus



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Eskolak, eztabaida eta borroka ideologikorako ere bai

Miren Zubizarreta

ELA Sindikatuaren hezkuntza arduraduna

“Pentsamendu kritikoa elikatzea ere bada sindikatuon egitekoa”

Hezkuntzan aritzen den sindikatu batentzat lan-baldintzez aritzea ezinbestekoa da. Hala aritu ginen aurreko ikasturtean eta hala arituko gara hasiberria den ikasturte honetan ere. Langile kopurua (edo ikasle kopurua), lanaldia, lan-kargak eta beste lan-baldintza batzuk ezinbesteko eztabaida dira langile jendea hobeto bizi dadin, baita hezkuntza sistema batek langileriaren beharrei erantzun diezaion. Lan baldintza egokiak ezinbesteko oinarri baitira kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.

Aurreko ikasturtean borroka eta greba ziklo gogoangarri batzuk egin genituen, zoritxarrez behar baino lehenago amaitu zirenak eta emaitza hobea merezi zutenak, egindako borrokei esker hainbat hobekuntza irabazi ziren arren.

Ikasturte honetan ELAk lan-baldintzak hobetzeko borroketan sakontzen jarraituko du, eta orain arte lortu ez ditugun hobekuntzak lortzeko borroka berriak kolektiboki eraikitzen saiatuko da. Baina sindikatuak badu interesa eskoletan bestelako eztabaida batzuk hauspotzeko eta aurrera pausoak emateko ere. Lan-baldintzetan ez direlako Euskal Herriko langileen interesak agortzen.

Eztabaida berriak sortu nahi ditugu eskoletan, gai guztietan erantzun argirik eskaini ezin dugun arren. Publikazio honen helburua ez da adoktrinamendua, gai batzuei buruzko pentsamendu kritikoa elikatzea baizik. Egin ezean, interes hegemonikoen zerbitzura egiten den adoktrinamenduaren morrontzan erortzeko arriskua baitugu.

Esaterako, burokrazian itota ari diren langileek posible dute ikasleengan zentratutako hezkuntza eskaintzea? Eta inolako burokraziarik ez badago nola bermatu helburu kolektibo komunen alde aritzea?

Bestetik, abiada bizian eta behartu egin den digitalizazioa pairatzen ari gara hezkuntzan, baina



**“Pentsamendu
kritikoa elikatu ezean,
interes hegemonikoen
zerbitzura egiten den
adoktrinamenduaren
morrontzan erortzeko
arriskua dugu”**

prozesu horrek ikasleen beharrei erantzuten die ala digitalizazioa bultzatu duten eta onuradun nagusi diren transnazionalen interesei?

Segregatutako eskolek gizartearen kohesioa ezinezko egiten dute. Baina segregazioa ez da soilik eskolan sortzen, eskolaz-kanpokoek ere erreproduzitzen dituzte. Nola bilakatu hau lehentasun politikoa, egungo segregazioak ez dezan biharko arrazismoa eta bereizkeria elikatu?

Euskara hizkuntza hila izateko arriskuaren berri izan dugu orain gutxi UEMAK 2036 urteari begira egindako azterketa batean. Eskolak ezin du dena konpondu, baina egin dezake bere ekarpena gizarte honen euskalduntzean. Nola gauzatzen da ekarpen hori gure eskola bakoitzean aurtan eta hurrengo urteetan?

Pedagogia hobetzea, berritzea eta egokitzea beharrezkoa da, baina berrikuntza pedagogikoaren diskurtso askoren atzean edota kompetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduaren atzean ez al dira bestelako interes ekonomiko, politiko eta ideologikoak ezkututzen? Posible al da benetako ezagutza eta pentsamendu kritikoa sustatzea edukietan

sakondu gabe? Zein eragin du berrikuntza pedagogikoaren edo kompetentzietan oinarritutako hezkuntza planteamenduak gurea bezalako kultura eta hizkuntza minorizatua duen, zapaldua den edo kapital handien menpe dagoen herri batean?

Euskal langileriaren defentsa egiten duen sindikatuak da ELA, eta argi du interes horiek ez daude soilik lan-baldintzei lotuak. Gizarte eredu kapitalista honek, Espainiaren batasun ukiezinean eta gaztelaniaren hegemonian oinarritzen den gizarte honek, molde ezberdinetan kolpatzen ditu langileak eta pribilejiodunak. Pentsamendu kritikoa elikatzea ere bada sindikatuon egitekoa. Argitalpen honetan luzatzen ditugun galderen eta irekitzen ditugun eztabaida guztien erantzunik ez dugu eta bertan azaltzen diren artikuluek ere ez dute gai bakoitzaren inguruko ELAren iritzia jasotzen, baina garrantzitsuak iruditzen zaizkigu eta hauen eta antzekoen inguruan elkarriketa eta eztabaida piztu nahi dugu hezkuntza komunitatean. Jaso ezazue bada gure gonbidapena: irakurri, eztabaidatu, proposatu eta sortu pentsamendua!

On egin!

1

Burokraziak hezkuntza eragozten duenean...

Eskola- burokraziaren arazoa

Albano de Alonso Paz
El País, 2024/11/20

“Burokraziak eskola irentsi du eta, azkenean, kanpoko arazo askori eusteko dike bihurtu dute, funtsezkoenerako ia denborarik utzi gabe: gure ikasleekin harreman zuzena izateko, alegia”

(Itzulpena: Manu Robles-Arangiz Fundazioa)

Gero eta irakasle gehiago ikusten ditut inguruan, eskola-burokraziak itota. Oso ohikoa da pentsatzea askotan irakaskuntzan denbora gehiago ematen dela txostenak, aktak, memoriak eta jarraipenak osatzen edo amaiezinak diren taulak betetzen ikasleen bilakaerari buruzko itemekin, eskolak planifikatzen baino. Beste alde batera begira daiteke, baina hori horrela da: irakaslearen administrazio-lana gero eta handiagoa eta korapilatsuagoa da.

Eskola ideala irudikatzerakoan, espazio komunitarioak irudika ditzakegu, irakasleek beren ikasleekin denbora eta espazio asko partekatzen dituzten guneak. Amets

egiten hasita, gure irudimenean antzekoak edo gertukoak diren beste sektore batzuetako profesionalak parte hartzen, behatzen eta elkar eragiten ari diren txokoak irudikatzen ditugu, esperientziak partekatzeke, ekarpenak egiteko edo, besterik gabe, aberasteko baliagarriak diren elkar ekintzak, alegia. Baina, esnatzen garenean, errealitatea desberdina dela jabetzen gara: burokraziak eskola irentsi du eta, azkenean, kanpoko arazo askori eusteko dike bihurtu dute, funtsezkoenerako ia denborarik utzi gabe: gure ikasleekin harreman zuzena izateko, alegia.

Orain, hezkuntzako edozein profesional, Herman Melvillek bere ipuineko Bartleby eskribatzailea deskribatzen zuen moduan ikus

daiteke: “txukun bezain zurbila, modu tamalgarrian errespetagarria eta bakarti sendaezina”. Egindako lanaren kalitateari estuki lotua, irakasleen hobekuntza profesionalaren eskakizun handienetako bat zera da, burokrazia lana aurrera ateratzeko zailtasunak kudeatzea eta, aldi berean, gure ikasgeletako aniztasuna ahalik eta egokien artatzea.

Baina eskolako burokraziak ez die guztiei berdin eragiten: dokumentuak kudeatu beharraren lana askoz handiagoa da karguren bat betetzen duten irakasleen artean (tutoreak, departamentu-buruak, programen edo proiektuen koordinatzaileak, etab.), ez dutenen artean baino. Gainera, esponentzialki biderkatzen da orientatzaileen eta zuzendaritza-taldeek kasuan, eta, ondorioz, alde batera utzi behar dituzte lidergo pedagogikora bideratutako ekintzak, edozein ikastetxe urtero murgilduta dagoen prozesuen kontrolarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat eskakizuni erantzuteko. Gainera, titulartasun publikoko zentroetako burokrazia-karga askoz handiagoa da pribatuetakoa baino; izan ere, administrazioen funtzionamenduari buruzko legeetatik eratorritako betebeharrak izugarri estutzen baitituzte. Ez dezagun ahaztu irakasle gehienak enplegatu publikoak direla.

Hala eta guztiz ere, ezin dut ukatu César Renduelesek “Contra la igualdad de oportunidades” (2020) saiakeran dioena horrela denik, eta hau da, hain zuzen ere, gainkarga burokratikoaren auzi delikatu honen abiapuntua: “Malgutze antiburokratikoaren ohiko efektu bat ez da askatasuna, arbitrariotasuna baizik. Horregatik, naziak boterea eskuratu bezain pronto Alemaniako administrazioaren egitura burokratikoa suntsitu zuten, diskrezionalitate karismatikoaren

“Kalitate desiragarria lortzeko, oreka bilatu behar da, humanismoak bizi dituen tokiak sortu behar dira, eta eskola-burokraziaren arazori buelta emateko aukera mahai gainean jarri”


mende jartzeko “. Burokrazia gutxi edo ia batere ez duen ikastetxe bat, eta horregatik iraultzaileztat jo daitekeena, alde bakarreko erabakietan eror daiteke eta, ondorioz, eskubideak eta betebeharrak urratzen dituen gurrpil batean sartu. Izan ere, lidergo oso demokratikoa duten ikastetxeek burokrazia ugari izaten dute, baita alderantziz ere.

Daniel Innerarity filosofoak, “Askatasun demokratikoa” (2023) bere azken saiakeran,

honako hau dio: “Politikak ez ditu bitartekoak onekak izendatzeko, ezta nabarmen hobeak bihurtzeko ere, baina bai praktika inozo batzuk zailduko dituzten eta kolektiboki adimentsuago bihurtuko gaituzten prozedurak bermatuko dituzten erakundeak eratzeko, gutariko bakoitza argiegia izateko beharrik gabe”. Izan ere, azkenean, gakoa zera dela uste dut: adimentsuago egiten gaituzten giza elkarrekintza horien nagusitasuna oztopatzen duten jokamoldeak alde batera uztea, hori egiteagatik eskolek gardentasuna eta eraginkortasuna galdu gabe.

Onar dezagun gure hezkuntza-sistemaren jarduna ez dela beti eraginkorra, eta hor datza gai honen beste dilema nagusietako bat. Erakundeak ebaluatzeko eta dauden pitzadurak antzemateko prozesu serio baten faltan, dokumentu berrien etengabeko sorkuntza zikloan murgildu gara, urtez urte aldatzen den eta trabatzen gaituen amaraun batean. Ez dira sustatzen ohiko esparruetatik kanpo irakaslearen kultura profesionalari buruz patxadaz hausnartzeko ekimenak. Ordenagailu baten aurrean gero eta ordu gehiago eskatzen duten jardueri lotzearen ondorioz, ikastetxeetan ez dago hezkuntza-elkarriketarik, ez dago horretarako ez tokirik ezta denborarik ere. Makinekiko dagoen mendekotasun handiaren ondorioz, ez dago atsedenik pentsatzeko eskolak eta txostenak prestatzeko etxetik lan egitea hobe edo okerragoa den, ezta esperientziak partekatzeko dauden une fisikoak kalitatezkoak diren edo bete beharreko izapide bat gehiago besterik ez diren hausnartzeko.

Remedios Zafra zorroztasunez azaltzen du “El informe” (2024) liburuan: “lan egiteko ordenagailu baten beharrak lotzen ditu «lan egiten duen subjektua» eta «denborarik gabeko subjektua»”ren



nortasuna lotzen dituen katebegiak". Gure jokabidea moldatzea ikasgelan ditugun nortasunen arabera, gure klaustroetan berritzea, esperimentatzea, ikertzea edo kontrastatzea: posible al da "denborarik gabeko subjektu" bihurtutako profesionalentzat? Bateragarria al da "lan egiten duen subjektu" horren automatizazioa, hain desiratu den eta azken hezkuntza-erreformarekin indartu nahi izan den, autonomia pedagogikoarekin?

Eskola-burokraziaren arazoan katuari kaskabiloa jartzea inork lortu ez badu ere, uste dut edozein konponbidetara gerturatzeko, lehenik eta behin, administrazio publikoek irakasleek eta zuzendaritza taldeek administrazio-zereginei eskaintzen dizkieten orduen azterketa sakona egin behar dutela. Ez dago horrelako ezer egina, ELGAko TALIS bezalako lagin-azterketek ematen dituzten estatistikez gain, eta horien

ondorioak ere ez dira batere itxaropentsuak. Azterketa hori egin ondoren -adostasun zehatza lortzen bada-, premiazkoa da legeek eskatzen dituzten eta eskatzen ez dituzten ekintza burokratikoak buruzko jarraibide argiak adostea, eta azken horien beharra eta eraginkortasuna baloratzea, horiek desager arazteko aukera dagoen ikusiz.

Era berean, ikastetxe bakoitzeko dokumentu instituzionalek argi eta garbi jaso behar dute behar-beharrezkoak diren zereginen eta eginkizunen banaketa. Ezin ditugu alde batera utzi ordenamendu juridikoak ezarritako arauak eta protokoloak, baina, era berean, ezin ditugu ahaztu titulartasun publikoko eskolen funtzionamendua gidatu behar duten arrazionalizazio- eta ekonomia-printzipioak. Azken hori gabe, iparririk gabe jarraituko dugu eta horma baten kontra talka eginez, irakaslearen benetako "autoritas" profesionala indartu nahi badugu,

behintzat. Horretarako, langile gogoetatsu eta sistemikoa behar dugu, ahalik eta komunitarioena, proposatzeko eta sortzeko gai dena, etengabeko eskakizun-olde batek itota sentitu gabe.

Amaitzeko, Marina Garcés-ek "Nueva ilustración radical" (2017) lanean plazaratutako azken hipotesiarekin geratuko naiz, "bizigarria den denboraren baldintzak" aipatzen dituenen. Kalitate desiragarria lortzeko, oreka bilatu behar da, humanismoak bizi dituen tokiak sortu behar dira, Garcesek aipatzen duen behin-behinekotasunaren zentzu berri hori aurkitu behar da: ezinbesteko eskakizunak kontuan hartuta, esklabo egingo ez gaituen zentzua, ikuspegi pedagogikoak berrasmatuko dituen eta eskola-burokraziaren arazori buelta emateko aukera mahai gainean jarriko duena, zentzuz, elkarrekin eta hurbileko ikuspegi batetik berrikusi ahal izateko.

Irakaslea hamster- gurpilean gatibu

Tere Maldonado

Argia, 2022/12/21

**“Ordenagailuaren aurrean
esertzean irakasle
askorengan sortzen den
antsietatea, angustia
eta egonezina, bizitza
laburtzen digutenak...”**

Itxaron, mesedez, honek minutu batzuk iraun dezake. Programak eguneratzen ari dira. Orria ezin da kargatu. Ekipoa berrabiarazi behar da. Pasahitza idatzi. Sentitzen dugu, pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro, mesedez. Barkatu, itxaronaldia gainditu duzu, joan zaitez aurreko pausora. Aukeratu zure ekipoareen konfigurazioa. Gorde nahi duzu zure konfigurazioa? Ustekabeko errore bat gertatu da. Aukeratu zure nabigatzaile lehenetsia. Egin klik “hurrengoa” botoian. Aukeratu pantaila-hondoa. Ez dago Interneteko konexiorik. Saiatu berriro minutu batzuk barru. Sentitzen dugu, programak ez du erantzuten. Berrabiarazi ekipoa, mesedez. Sartu erabiltzailea eta pasahitza. Erabiltzailea edo pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro. Erabiltzailea edo pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro. Zure ekipoko aplikazio batzuen eguneraketa prest dago, eguneratu nahi duzu orain? Eguneratu nahi duzu orain? EGUNERATU NAHI DUZU ORAIN? Zure ekipoa arriskuan dago, antibirusa eguneratu behar da. Onartu cookiak edo “informazio gehiago” botoian klikatu. Web-orri honetan sartzeko erregistratu behar da. Pasahitzik baduzu? Sartu pasahitza edo erregistratu. Sartu erabiltzailea. Erabiltzailea ez da zuzena. Aukeratu dokumentua irekitzeko programa. Formatua bateraezina da. Programa hau ez dago ekipa honetan instalatuta. Deskargatu programa. Programa deskargatzen ari da. Itxaron, honek minutu batzuk iraun dezake. Programa egoki deskargatu da. Instalatu behar duzu programa. Sentitzen dugu, ez duzu programa instalatzeko baimenik. Baimena eskatu. Irakurri gabeko 55 mezu dituzu sarrerako ontzian, irakurri nahi dituzu orain? Ez dago konexiorik. Zorionak, 10.000. erabiltzailea zara, klika ezazu “onartu” botoian zure saria ikusteko. Ziur zaude ez duzula zure saria ikusi nahi? ZIUR ZAUDE



ZIUR ZAUDELA? Pasahitza idatzi behar duzu berriro. Hautatu inprimagailua. Errore bat gertatu da. Sistemak ez du erantzuten. Mesedez, itxaron. Esan zein iruditan dagoen semafororik. Erantzun okerra. Esan zein iruditan dagoen zebra-bide bat. Erantzun zuzena. Bost segundo barru publizitatea saltatu ahal izango duzu. Lau segundo barru..., hiru, bi, bat, zero. Orain alboratu ahal duzu iragarkia. Zure pasahitza iraungi da. Mesedez, sartu pasahitz berri bat. Errepikatu pasahitza. Pasahitza ez da baliozkoa, gutxienez hamar karaktere izan behar ditu. Pasahitza ez da baliozkoa, letra larriak eta xeheak izan behar ditu. Pasahitza ez da baliozkoa, zifrak eta letrak izan behar ditu. Errepikatu pasahitza. Gaiinditu duzu saiakeren kopurua. Hasi saioa berriro. Itxaron, zure ezarpenak ari dira kargatzen. Konturik baduzu? Sartu pasahitza. Ireki kontu bat. Hasi nahi duzu saioa zure korreo elektronikoaren bidez?

Mezu bat bidali dizugu sakeleko telefonora, ipini laukian bidalitako kodea. Ez duzu mezurik jaso? Pasahitza edo erabiltzailea okerra da. Beste bi saiakera dituzu. Arazo bat gertatu da. Ekipoa amatatu behar da. Kontuz, hau azken saiakera da. Ziur zaude atera nahi duzula hemendik?

[Eguneroko ogia. Ikasgelan bertan; lan-mahaian ariketak zuzentzean; familiei edo ikasleei mezu bat bidali nahi izatean; azterketak prestatzean. Etsigarria eta amorragarria. Eusko Jaurlaritzak Interneteko eta informatikako multinazional erraldoiekin kontratu ederra sinatu zuen duela aste batzuk, eta konpainioi hezkuntza publikoan jaun eta jabe izateko aukera eman die. Baina ez dute baretu ordenagailuaren aurrean esertzean irakasle askorengatik sortzen den antsietatea, angustia eta egonezina, bizitza laburtzen digutenak. Ziur horretan ari direla lanean. Auzolana].

2

Teknologia ikasleen, heziketaren eta herritarren zerbitzura

Hezkuntzaren
digitalizazioa:
bidegurutzean
norabidea aldatu,
baina nahikoa al da?

Gorka Julio

Gara 2024/04/28

Hezkuntzaren digitalizazioa eztabaidagai izan da azken urteotan, bereziki COVID-19 pandemiak bizkortutako digitalizazio azkar eta behartuaren ondorioz. Azkenaldian, teknologiaren erabilera berraztertu eta mugatu beharra aldarrikatzen duten ahotsak ugaritu dira. Horren adibide dira mugikorren erabilera murriztearen aldeko ekimenak, hala nola Altxa

Burua edo HezkuntzArtearen iritziak. Hala ere, eztabaidak ez du soilik digitalizazioaren intentsitatea aztertzen, haren norabidea eta izaera ere aztertzen ditu. Horretan, Hezkuntzan Librezale-k azpimarratzen du badiela teknologia burujabetzaren ikuspegitik beste begirada ugari ere. Nola egin digitalizazio burujabe, etiko eta arduratsu bat orduan?



LEGEAREN AURRERAPAUISOAK

2023-2024 ikasturtea aldaketa nabarmenekin iritsi zen. Batetik, EAEko Hezkuntza Lege berriak digitalizazio etiko eta arduratsuaren beharra aitortu zuen. Legeak jasotzen duenez, digitalizazioak pribatutasuna eta ahalduztze digitala bermatu behar ditu, eta hori tresna teknologiko libre, garden eta entzungarrien bidez egin behar da.

Ipar Euskal Herrian ere urratsak egin dira norabide horretan: Seaskako zenbait ikastola tresna libreekin digitalizatzeko prozesuan murgilduta daude, eta Euskal Herriko Ikastolen VII. Batzarrean digitalizazio ereduaren norabidea aldatzea erabaki zen.

Hala ere, araudi berriak eta lege-testuak ez dira beti nahikoa. Praktikan, EAEko Administrazio Orokorrak 2022ko udaberrian Google-ekin hitzarmena sinatu zuen hezkuntza zentroetan Google Workspace for Education erabiltzeko. Horrek eztabaida piztu zuen, eta herritar batzuek salaketa aurkeztu zuten Datuen Babeserako Euskal Agintaritzaren aurrean. Azken honek ebazpen argia

kaleratu zuen: hitzarmenak Datuen Babeserako Erregelamendua urratzen zuela ebatzi zuen, eta Hezkuntza Sailak ikasleen datuen babesa arriskuan jartzen zuela.

IRADI PROIEKTUA: AUKERA ETA ZALANTZAK

Google-ren hitzarmenaren inguruko eztabaidaren testuinguruan, EAEko legebiltzarrak IRADI proiektua abian jartzea onartu zuen. Proiektu honen helburua hezkuntzan tresna teknologiko entzungarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiltzea da. Hala ere, hainbat zalantza agertu dira:

- Zergatik ez da interesa eta esperientzia zuten eragileekin abiarazi?
- Nahikoak al dira baliabide tekniko eta ekonomikoak?
- Plataforma guztiz libre bat sortu dela iragarri arren, zergatik behar da Microsoften posta elektronikoarekin sartzeara?

Bestalde, EAEko hezkuntza digitalizatzeko plana 2021-2024rako onartu zen, baina 2023ko abenduan onartutako legearen markoan

oraindik ez da egokitu. Hau da, ezarpenak zaharkituta jarraitzen du. Gauza bera gertatzen da Berritzeguneei buruzko dekretu-proiektuarekin: proposatutako aldaketek ez dituzte lege berriak ezarritako digitalizazio helburuak eta printzipioak kontuan hartzen.

Hori ikusita, 2025eko martxoan EH Bilduk, EAJk eta PSEk IRADIren aldeko apustu irmoago bat egiteko beharra adostu zuten, EAEko markoan. Espero da hurrengo ikasturtari begira albiste onak ekarriko dituela.

BIDEA IREKI DA, BAINA JARRAITUKO AL DUGU?

Lege eta testu ofizialei erreparatuta, iruditu liteke digitalizazio demokratiko, libre, etiko eta arduratsu baterako bidea irekita dagoela EAEn. Hezkuntza Legearekin eta IRADI proiektuarekin urratsak egin dira, eta Ikastolen Elkarateak ere norabidea zuzendu du. Hala ere, kezkarako arrazoiak badaude:

- Digitalizazio-planaren egokitzapenik ez da egin.
- IRADI proiektua ez da behar bezala garatu.

“Lege eta testu ofizialei erreparatuta, iruditu liteke digitalizazio demokratiko, libre, etiko eta arduratsu baterako bidea irekita dagoela EAEn, baina elkarrekin lan egin ezean, norabide aldaketa horrek benetako eraldaketa ekarriko ote duen zalantzan dago”

Hezkuntza Librezele-k digitalizazio etiko eta arduratsu baten alde lanean jarraituko duela adierazi du. Horretarako, erakunde publikoetako hezkuntza arduradunek, zentroetako zuzendariak, guraso elkarteak, sindikatuek eta bestelako ekimenek indarrak batzea beharrezkoa izango da. Bide egokia markatua dago, baina elkarrekin lan egin ezean, norabide aldaketa horrek benetako eraldaketa ekarriko ote duen zalantzan dago.

Bestalde, hezkuntza publikoaren esparruan, eragile eta sindikatu ezberdinek gai hau beren aldarrikapenetan txertatzeko ahalegina egitea garrantzitsua litzateke. Ez bakarrik lehen eta bigarren hezkuntzan, baita unibertsitate mailako ikasketetan ere.

ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUAK

Badira hezkuntzan maila ezberdinetan arrakastatsuak izan diren adibide batzuk. Horien artean Kataluniako DD, Madrilen eginiko EducaMadrid eta frantses estatuan sortutako La Digitale ekimena.

DD Xnet ekimenak eta zenbait familiak sustatutako hezkuntzarako plataforma digital integrala da. Plataformak software libreko tresnak integratzen ditu tresna bakar batean, datu burujabetza eta eskubide digitalak bermatuz. Plataforma honek ikaskuntza kudeaketa, hodeian biltegiratzea, posta elektronikoa eta bideodeiak bezalako funtzionalitateak eskaintzen ditu, guztiak kudeaketa bateratuan eta saio bakar baten bidez. Horrez gain, bere diseinuak erabilerraztasuna, interoperabilitatea eta segurtasuna lehenesten ditu, eta ikastetxeek beren datuen eta komunikazioen gaineko kontrola izatea ahalbidetzen du.

EducaMadrid hezkuntza komunitateari, irakaskuntzarako,

ikaskuntzarako, zein gaitasun digitalak eskuratzeko, zerbitzu pedagogiko ugari eskaintzen dizkion plataforma da. Software librean diren tresnak integratzen ditu, posta elektronikoa, hodeian biltegiratzea, webguneak, formulario sorrera, bideodeiak etab. eskaintzeko. Plataforma honek ezinbesteko papera izan zuen pandemia garaian, eskola publikoei zerbitzua eskaintzerakoan.

La Digitale tresna sorta ekimen autonomoa ere adibide bikaina da. Bere helburuak hauek dira: irakasleentzat tresna digital libreak sortu eta garatzea, hezkuntza alorrean software librearen erabilera bultzatzea, eta irabazi asmoan eta datuen bilketan oinarritutako zerbitzuei alternatiba eskaini ahal dioten ikuspegiak eta ereduak ikusgarritasuna handitzea.

EUROPAKO MUGIMENDUAK

Europar gauzak mugitzen ari dira software libreari dagokionez. Zenbait estatuk software libreko tresnak soilik erabiltzeko erabakia hartu dute, eta beste batzuk bide horretan daude. Gainera, EU OS Europako sistema eragile propio bat sortzeko ahalegina egingo dutela iragarri dute.

Hala ere, hitzak bihurrituz, subiranotasuna ez da burujabetza. Hau da, estatuak gidatutako digitalizazio askeago honek ere bere mugak, kontrolak eta murriztapenak izango ditu. Teknologiaren unibertsalizazioa, demokratizazioa eta pribatutasuna bermatzen ez badira, hezkuntzan ez ezik, beste alor askotan ere arazoan sakontzeko arriskua dago.

X-net erakundea, adibidez, etengabe salatzen ari da Europako Batasuna osatzen duten zenbait herrialdek pribatutasuna erasanez egin nahi dituzten digitalizazioari lotutako erreforma legalak.

Teknologia pixka bat baliatzea ona da hezkuntzan, baina asko baliatzeak ez du laguntzen

Mikel Garcia Idiakez

Argia, 2021/05/05

“Ez nago teknologiaren kontra eta teknologia ikasi behar dela uste dut, baina ahaztu gabe espiritu kritikoa izan behar dugula arlo honetan ere, eta ondorio oso kaltegarriak izan ditzakeela”

Sarri, teknologia iristen da arlo batera eta goitik beherako eraldaketa eragiten du, eta jende batek uste du hezkuntzan hori gertatuko dela: bertan dagoen errealitatea apurtuko duela, beste zerbait berria sortzeko”. Berba horiekin abiatu du Pablo Garaizarrek bere hitzaldia. Teknologiako irakaslea da Deustun eta Hezkuntzaren Probak kongresuan izan duen parte-hartzea ekarri dugu hona. Galdera potoloari erantzuten saiatu da: teknologia benetan ari al da hezkuntza iraultzen?

Online ikastaroak, Googlek eta Microsoftek eskoletarako ateratako paketeak, errealitate –laborategi– birtualak, ikasketa pertsonalizatua lortzeko adimen artifiziala hezkuntza munduko datu masiboekin uztartzeko aukera, 3D inprimagailuak, droneak, robotak... Aurrerapen teknologikoei esker irakaskuntzan gauza berri asko egin daitekeela sinetsita dago jendea, baina teknologia benetan iraultzen ari al da hezkuntza? “Droneak ikasgelan erabiltzen dituen irakasleari galdetzen badiozu ziurrenik baietz esango dizu, baina ebidentzia

aztertzen badugu, erantzuna bestelakoa da: ez hainbeste”, dio Garaizarrek.

IRAKURTZEKO, PAPER ALA PANTAILA?

Ebidentzia hori ikerketa ugaritan oinarritzen du irakasleak. Esaterako, paperean edo pantailan irakurtzearen arteko aldea aztertzen duten analisiak hartu ditu hizpide. Azken hamar urteotan egin diren azterketa guztien arabera, papera da “garaile”. Eta bitxia da: hamar urte hauetan handitzen joan da aldea, paperaren mesedetan. Alegia, natibo digitalak gero eta gehiago diren arren, paperean irakurtzea hobea izaten jarraitzen du, pantailarekiko gero eta alde handiagoarekin. “Pantaila digitalean irakurtzen dugunean, gailu batekin ari gara eta normalean gailu horrek beste gauza askorako ere balio du; “gauza asko” horiek irakurketa oztopatzen dute, edo tartean sartzen dira”, azaldu du Garaizarrek. Harritu gaitzakeen beste datu bat: denbora gutxi dugunean, presa dugunean, ikerketek diote askoz hobeto egiten dugula

irakurketa paperean, pantailan baino. Eta testu informatiboak ere askoz hobeto irakurtzen ditugu paperean –adibidez, argibide eta gidaliburuak–. Testu narratiboetan, non zehaztasunak ez diren hain garrantzitsuak, antzera irakurtzen dugu batean zein bestean.

ONLINE DENBORA ETA MAILA SOZIOEKONOMIKOA

Students, Computers and Learning. Making the Connection (OECD, 2015) ikerketak lotzen ditu PISA etsamina, ikasleen etxeetan eta ikasgeletan dagoen teknologia, eta online igarotzen duten denbora. Eta bete-betean agertzen da beste faktore bat: ikasle horien errealitate sozioekonomikoa. “Maila sozioekonomikoak asko baldintzatzen du ikaslearen hezkuntza ibilbidea, eta batzuetan saltzen digute metodologia berri baten arrakasta, baina beharbada arrakasta ez da metodologia horregatik, baizik eta profil jakin bat duen ikastetxean egin dutelako ekimena (maila sozioekonomiko altuko ikasledun ikastetxean, ratio txikiko gelak dituen...). Bada, berdin online denborarekin: ezin da neurtu besterik gabe pantailari begira zenbat denbora pasatzen duen ikasleak, baizik eta pantailari begira ari denean zertan igarotzen duen denbora ikasleak. Eta ikerketen arabera, maila sozioekonomiko altuagoa edo baxuagoa izan, gauza ezberdinetarako erabili ohi dituzte pantailak”, kontatu du irakasleak.

Baina maila sozioekonomiko bera izanik ere, merezi du teknologian inbertitzeak, hezkuntza hobetzeko? “Txostenean jasotzen dituzten azterketa guztien arabera, teknologia pixka bat ona da, baina teknologia askok ez du laguntzen, are gehiago, egoera okertu dezake batzuetan”. Txosteneko grafikoetan zubiaren irudia ohikoa dela azaldu du Garaizarrek: teknologian inbertitzen

“Maila sozioekonomiko altuagoa edo baxuagoa izan, gauza ezberdinetarako erabili ohi dituzte pantailak”

hasi eta hobetu egiten dira emaitzak, baina zenbat eta gehiago inbertitu, okerrera egiten du ikasleen errendimendua.

Txosteneko ikerketek, azkenik, matematikaren arloa ere hartzen dute kontuan. Eta ondorioa da matematikak ere hobeto egiten direla paperan: zenbat eta teknologia gutxiago, orduan eta hobeto egiten dira matematikako ariketak eta orduan eta hobeto garatzen da pentsamendu abstraktua. Kasu honetan, adibide pertsonal bati

heldu dio hizlariak: “Unibertsitatean Kalkulua ematen duen lagun irakasleak esan ohi dit delaunaldi berriak ez direla gai orri ugari eta 20-30 minutu baino gehiagoko garapena behar duten ariketetan kontzentratzeko. Oso onak direla erantzun anitzeko testak egiten, baina eseri eta koherentzia duen garapena egitea kostatzen zaiela eta teknologia ez dela laguntzen ari”.

TEKNOLOGIA BERRIAK ESKOLAN SARTU DIRELARIK, ZER GERTATU DA?

Google, Microsoft eta Applek hezkuntza mundurako eskaintza ugari dute eta Chromebookak, iPadak eta eskolan lantzeko paketeak famatu dituzte. Baina programa horiek oro har ez dute emaitza onik eman, eta hori frogatzeko ikerketa gehiago jarri ditu mahai gainean Garaizarrek. Espainiako Estatuko Eskola 2.0 programaren inpaktua aztertzen duen lanaren arabera, tablet eta ordenagailu eramangarriek efektu negatiboa izan zuten matematiketan. Teknologia berrien erabilera moderatua positiboa izan zen –baina adi, ikerketaren egileentzat erabilera moderatua da hilean behin edo bitan erabiltzea–, eta hortik aurrera ez zitzaion efektu positiborik aurkitu. Nazioarteko antzeko programak aztergai, beste lan batek dio Uruguaiako programak (Ceibal Planak) ez zuela efektu positiborik izan ez matematiketan, ez irakurketan. Txinan (One Laptop Per Child OLPC programan) efektu positibo bitxiak antzeman zituzten: ikasleek telebista gutxiago ikusten zutela, autoestimua hobea zutela eta ordenagailua erabiltzen trebatu zirela. Ekuadorren (OLPC programa baita ere), matematiketan zertxobait hobetu zuten, ez irakurketan; eta Kolonbian (OLPC) ez zen inongo kompetentzietan hobetu. Katalunian (EduCat programa) ikusi zuten efektu negatiboa izan zuela egitasmoak ikasleengan:

“Enpresa teknologikoak ez dira zuzenean joaten ikastetxeetara, irakasleak bidaltzen dituzte, baina funtsean teknologiaren bat saltzera datozen komertzialak dira”

programan sartu ziren ikastetxeen emaitzak okerragoak izan ziren, sartu ez ziren ikastetxeen emaitzekin alderatuta, eta ikerketak kontuan hartu zituen gainerako parametro guztiak –alegia, ondorio hori ez dela okerrean zeuden ikastetxeak sartu zirelako programan–. Katalunian, gainera, beste ondorio adierazgarri bat antzeman zuten: teknologia sartzearen ondorio negatiboek inpaktu handiagoa izan zuten mutilengan, nesengan baino. “Nolabait esateko, mutilek errazago galdu zuten arreta, eta hainbat kasutan aldea handia izan zen”.

Eskolan agindutako lanak egiteko teknologia etxera eramatea ere ez da lagungarria, Pablo Garaizarren esanetan. Beste hiru ikerketa aipatu ditu hori argudiatzeko, Errumanian, Perun eta Kalifornian eginak.

Eta telefono mugikorrari ere eskaini dio tarte irakasleak: hainbat azterketaren arabera, mugikorraren erabilera lotuta dago nerabeen errendimendu kognitiboaren galerarekin. Mugikorra eta errendimendu akademikoaren galera kausa-ondorio gisa frogatzen duen azterketarik ez dago oraindik, baina bien artean lotura oso handia dagoela antzeman da.

ONENA, AZKEN AURREKO MODA JARRAITZEA

Hala ere, hezkuntzarentzat teknologia oso onuragarria dela uste dutenak ez dira gutxi, eta ikerketetako emaitza txarrak justifikatzeko argudioak eskura izaten dituzte: irakasle asko oraindik ez dagoela behar bezala prestatuta, materialak ez daudela egokituta, teknologiari esker hobetzen dena neurtzeko test estandarizaturik oraindik ez dagoela...

“Ni Teknologiako irakaslea naiz eta teknologia izugarri gustatzen zait –dio Pablo Garaizarrek–, baina

ez dut uste klasean teknologia-palakadak botatzea soluzioa denik, irakasleak formatuta egonda ere. Irakasleei gomendatu ohi diet: “Azken modan egon beharrean, egon zaitezte azken aurrekoan”, zeren punta-puntan dagoena ikasgelara eramatea da oraindik testeatu gabe dagoen horrekin borrokan ibiltzea etengabe, eta azken aurrekoari kasu egiteak esan nahi du teknologia aintzat hartzea eta baliatzea, ez mespretxatzea, baina ateratzen duten gauza berri bakoitzarekin flipatu gabe. Pedagogiak sarri akats hori baitauka: argiak ikusten joaten gara eta argirik distiratsuen gustatzen zaigu, baina berehala jarriko digute argi distiratsuagoa aurrean, eta azkenean ez gara ezertan zentratzen”.

TXIN-TXIN, TXIN-TXIN, DIRUAREN HOTSA

Orduan, zergatik dago hainbeste jende ikasgelan teknologia sartzeko bultza eta bultza? Garbi du Garaizarrek: etekin ekonomiko handiak eman ditzakeen sektorea delako. “Enpresa teknologikoak ez dira zuzenean joaten ikastetxeetara, irakasleak bidaltzen dituzte, eta irakasle hauek behin eta berriz errepikatzen dute irakasleak direla, baina funtsean teknologiaren bat saltzera datozen komertzialak dira. Bestalde, ikastetxe kontzertatueta maiz gertatzen da guraso askok teknologia sartzeko nahi duela, eta bezeroak beti arrazoia duenez, presioa dago teknologia txertatu dezaten eskolako jardunean”.

Saio amaieran, irakasleak berriro ere nabarmendu nahi izan du teknologia maite duela. “Ez nago teknologiaren kontra eta teknologia ikasi behar dela uste dut, baina ahaztu gabe espiritu kritikoa izan behar dugula arlo honetan ere, eta potentzialki ondorio oso kaltegarriak izan ditzakeela, buruarekin erabiliz gero potentzialki onuragarria izan daitekeen gisan”.

3

Segregazioa, zapalketaren beste aurpegi bat

Eskola-segregazioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Amelia Barquín

abarquin.wordpress.com 2022/05/01

**“Segregazioa
Euskal
Autonomia
Erkidegoko
hezkuntza-
sistemaren
ezaugarri
nabarmenetako
bat da”**

(Itzulpena: Manu Robles-Arangiz Fundazioa)

ZER DA ESKOLA-SEGREGAZIOA?

Segregazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren ezaugarri nabarmenetako bat da. Hitz gutxitan esanda, honela defini daiteke: jatorria atzerrian duten eta baliabide ekonomiko urriak dituzten ikasleak ikastetxe jakin batzuetan pilatzen dira, eta ikastetxe horiek ez dute islatzen inguruko biztanleriaren osaera. Sarri, gainera, ikasle horien profila nabarmen desberdina da ondoan dauden beste ikastetxe batzuetako ikasleenarekiko. Horren ondorioz, badira ia soilik tokiko jatorriko eta klase ertaineko edo goi-mailako ikasleak biltzen dituzten ikastetxeak.

Batzuetan, fenomeno hau lehendik dagoen bizilekuaren baitako segregazioarekin lotu izan da, eta adierazi izan da ikastetxe horien inguruko eremuetan atzerritarrak edo baliabide urriko pertsonak bizi direlako dela. EAEn, ordea, askotan eskola “segregatu” baten ondoan kontrako egoeran dagoen beste bat izaten da. Eta eskola-segregazioa beti izaten da bizitegi-segregazioa baino nabarmenagoa.

Jatorria atzerrian duten ikasleez ari garenean, beste herrialde batzuetan jaiotakoak hartzen ditugu aintzat, baina baita beren familiak atzeritik etorri eta euskal gizartean jaiotakoak ere, hau da, beraien familiek jatorria atzerrian duten arren bertakoak direnak. XXI. mendearen hasieratik



Argazkia: Hiruka.eus (Kepa Ugarte Martiarena)

nabarmen ugaritzen ari den Estatutik kanpoko immigrazio horren seme-alabak dira (Ikuspegiren datuen arabera, egun EAEko biztanleen %11 baino zertxobait gehiago da jatorri atzeritarrekoa). Beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak zein jatorri atzeritarreko familia batean jaiotako ikasle autoktonoak, segregazioa pairatzen ari dira. Klase sozialaren araberrako segregazioa lehendik ere bazegoen, eta ondo dakigu lehen ere bazeudela “pobreentzako” eskolak eta baliabide gehiago zituzten familientzako eskolak; baina ikasle berri horien eskolatzean dagoen desoreka gero eta handiagoa denez, fenomenoak gero eta agerikoagoa da.

Euskal hezkuntza-sistemaren publiko/pribatu dualtasuna da segregazioaren ardatz nagusia, nahiz eta ez den bakarra. Jatorria atzerrian duten eta egoera ekonomiko okerragoan dauden ikasleen metaketa, batez ere,

ikastetxe publikoetan gertatzen da (ez guztietan), eta baita itunpeko batzuetan ere. Gogora dezagun EAEko ikasleen erdia sareetako batean eskolatzen dela eta beste erdia bestean. Hori da sistema horren egungo ezaugarrietako bat, eta beste hezkuntza-sistema batzuetatik bereizten duena: izan ere, sare pribatuko ikasleen proportzioa espainiar estatuan dagoen batez bestekoa baino handiagoa da, eta proportzio altu hori ezohikoa da Europako hezkuntza-sistemetan. Gogora dezagun, halaber, EAEko sare pribatuko ia ikastetxe guztiak itunduak direla, hau da, diru publikoarekin finantzatuak. Sare pribatuaren barruan, EAEko hezkuntza-sistemako ikastetxeen %35 diren ikastetxe katolikoek ikasle etorkin gehiago hartzen dituzte ikastetxeen ia %15 diren ikastolek baino eta, ondorioz, ikasle horien presentzia txikiagoa da azken hauetan. Dena den, ikastetxe katolikoaren artean ere alde

nabarmenak daude: bokazio soziala duten batzuek desabantaila egoeran dauden ikasle proportzio handia eskolatzen dute, eta beste batzuek, berriz, ia ez dute horrelako ikaslerik. Egoera bera duten eskola publiko batzuk ere badaude.

Segregazioaren fenomenoak ez da EAEn bakarrik gertatzen, baina bertan duen dimentsio handia azpimarragarria da. Lucas Gortazar ikertzailearen hitzetan (Berria, 2021/05/12), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa dira jatorria atzerrian duten ikasleak gehien bereizten dituzten espainiar estatuko lurraldeak, baita Madrilgo Erkidegoaren aurretik ere.

NOLA SORTZEN DA?

Mekanismo garrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditugu. Ikastetxeetan hileko kuota bat ordaintzea da familiak hautatzeko bide nagusia (kuoten zenbatekoa aldakorra da ikastetxeen baitan). Mekanismo

horren bidez, gizarteko geruza oso batek ez du zentro horietara sartzeko aukerarik, nahiz eta, adierazi dugun bezala, ia guztiak itunduak izan, hau da, diru publikoarekin finantzatuak, baita zentro horietara joaterik ez duten herritarren zergekin ere. Funts publiko horiek ikastetxe horiek mantentzeko nahikoak diren ala ez, oraindik irekita dagoen eztabaida da, eta auzi hori argitzeko, administrazioak gardentasun handiagoa erakutsi beharko luke diru kontuetan.

Ikastetxe askotan, itunek estaltzen ez dituzten eta familien kuoten bidez ordaintzen diren zerbitzuak eskaintzen dira (esaterako, publikoetan baino irakastordu bat gehiago). Aparteko zerbitzu horiek ondo baloratzen dituzte kapital ekonomiko eta kultural handiagoa duten familiek, eta eskola horiek aukeratzeko beste arrazoi bat dira. Zerbitzu horien ordainketak, gainera, baliabide urriko ikasleak ez eskolatzea dakar. Horrez gain, “klase giro” edo “estilo” jakin bat ere badago: zenbaitetan, dirua eskatzen duten aparteko jarduerak antolatzen dira, gastua suposatzen duten txangoak eta bidaia egiten dira, edota kirol-ekipazio edo uniforme jakin bat eskatzen da...

Bereizketa errazten duen beste prozedura bat haurrak itunpeko ikastetxeetako bi urteko itundu gabeko geletan eskolatzea da. Kasu hauetan, familiek diru kopuru handia ordaindu behar izaten dute eskolatzegastuak estaltzeko. Eta baliabide ekonomikoak dituzten familietako seme-alabak izaten dira hurrengo mailetako eskola-plazak betetzen dituztenak, beste familia mota batzuentzat tokirik utzi gabe.

Bestalde, beren seme-alabak eskolaratzera datozen familiei arreta ikastetxean bertan emateak ekar dezake, batzuetan, arreta eskaintzen dien pertsonak ongi etorriak ez

direnaren mezua helarazte dielako, kuota ordaintzeko zailtasunak dituztelako edo ikastetxearen ideario erlijioso edo ideologikora egokitzen ez direlako eta beraientzat beste eskola egokiago batzuk badaudela aditzera ematen zaielako.

Ikastetxe bakoitzak matrikula-eskaerak barematzerakoan ematen dituen puntuek (zentroak berak ezarritako irizpideen arabera) ere ikastetxe horiek gizarteko aniztasunaren isla izatetik alden ditzakete: adibidez, puntu gehiago ematea ikasle ohi baten seme-alaba izateagatik, ikastetxean inplikazioa duen familia batekoa izateagatik, edo ikastetxeko bazkide kooperatibista izateagatik...

Aniztasun sozial handia duten ikastetxeetan, bestalde, ikasleak gehiago mugitzen dira; izan ere, familiak bizilekuz aldatzen dira beste nonbait lan-aukera hobeak edo etxebizitza-aukera hobeak sortzen direlako. Plaza libreak herrira edo hirira iritsi berri diren ikasle berriak betetzen dituzte. Beraz, segregazioak gorpil zoro gisa funtzionatzen du. Aniztasunik gabeko ikastetxeek, jakina, askoz talde egonkorragoak dituzte.

ZENTRO HOMOGENEOAK

Horrela, heterogeneotasun sozial txikiko gero eta ikastetxe gehiago aurkitzen ditugu, familia bakoitza bere gizarte-klaseko eta jatorriko beste familiekin elkartzen direlarik. Eta hori da gaur egun seme-alabak non eskolatu erabakitzeko arrazoirik garrantzitsuenetako bat, batez ere benetan aukeratzeko gaitasuna duten familientzat: zein klase edo talde sozialek osatzen duten ikastetxe hori, alegia.

Dinamika sozial horien atzean, alde batetik, desabantailan dauden familiek egoera antzekoan daudenekin elkartasuna eta

segurtasuna bilatzeko nahia edo beharra dago. Nahiz eta, jatorria atzerrian duten familia askok ez duten nahi izaten beren antzeko familiak soilik dauden ikastetxeetara joatea eta, gheztizaziotik ihes egin nahian, nahasketa sozial handiagoa duten inguruneak bilatzen dituzten. Eta beste alde batetik, nagusi den gizartearen ezaugarri batzuek agerian uzten dute tokiko klase ertaineko familia batzuek ez dutela nahi halako nahasketarik beren seme-alabentzat: aporofobia, klasismoa, arrazismoa edo antzeko beste arrazoiek eraginda.

BI HAMARKADA NEURRI ESKASEKIN ETA EGOERA SALATUZ

Eskola-segregazioa duela hamabost urte baino gehiagotik salatzen eta mahai gainean jartzen ari da hezkuntza-komunitatearen zati bat (ondorioak pairatzen ari direnak) eta hainbat eragile eta erakunde (Arartekoa, sindikatuak, Save the Children...), baina, aldi berean, gizartearen zati handi batek ez du aintzat hartu. Naturalizatu den diskriminazio bat da eta horren isla den desberdintasun soziala ere normalizatu egin da: “normalizat” jo da, beti gertatu izan den zerbait bailitzan, gure gizartean eta beste hainbatetan gertatzen den zerbait. Eta aldi berean, urte luzez, herritarren eta hezkuntza-administrazioaren aldetik egoera ukatu egin da: fenomeno ikusi eta izendatzeari uko egin zaio, alegia.

Hala ere, 2003an Hezkuntza Sailak ikasle etorkinei arreta emateari buruz argitaratutako dokumentuetan jada ageri dira haien eskolatzeari dagoen desorekaren inguruko datuak. Izan ere, azken bi hamarkadetan, zenbait hezkuntza-arduradunek kezka adierazi dute eta arazoari aurre egiteko asmoa ere azaldu dute. Administrazioak, ordea, ez du etenik ez duen eta urtez urte areagotzen ari den segragazioari aurre egiteko

“Ikasleak jatorriagatik eta diru-sarrerengatik bereiztea diskriminatzailea da, eta ondorio negatiboak ditu ikasle diskriminatuentzat”

neurri eraginkorrik martxan jarri. Hau da errealitatea. Orain arte hartu diren neurriak, oro har, konpentsazio-neurriak izan dira (segregazioa jasaten duten ikastetxeetan eraginak arintzeko), baina ez eraldatzaileak (zentro batzuk desagregatzeko eta beste batzuk heterogeneoago bihurtzeko).

Segregazioaren aurkako gizarte-mugimendua azken urteetan azaleratu da modu nabarmenean, batez ere herritarren aktibismoari esker. Nabarmentzekoa da 2016an sortutako Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformaren lana, aldarrikapenak plazaratuz, mobilizatuz eta proposamenak eginez. Zubiak Eraikiz herri-plataformak, bere aldetik, eskola-segregazioaren gaia Eusko Legebiltzarrerara eramatea proposatu zuen. Herri Ekimen Legegile hori 2018ko azaroan aurkeztu zen Legebiltzarrean, 17.000 sinaduraren babesa zuen proposamen sorta batekin; baina tramitazioa atzera bota zen EAJ, PSE eta PPren botoekin. Irakaskuntzan dihartuten sindikatuek ere behin eta berriz salatu dute egoera. Ondorioz, gaur egun inork ez du fenomeno ukatzen, eta duen protagonismo tristea ere aitortua da euskal hezkuntza-sisteman. Egoera hau deserosoa ere bada gizarte-aniztasunik gabeko zenbait ikastetxerentzat, eta badira ikasle profil anitzagoak hartzeko prest agertu direnak ere.

IKASTETXEEN BEHARRAK

Bistakoa da gizarte-aniztasun handiena duten ikastetxeek baliabide gehiago behar dituztela, bereziki irakasle gehiago, oraindik hizkuntza ez ezik, hezkuntza-sistema bera ere menderatzen ez duten familiei arreta emateko, familia hauek egin behar dituzten kudeaketetan laguntza eskaintzeko, haien parte-hartzea errazteko, ikasle berrien beharrei hainbat alorretan erantzuteko...

guzti horrek esfortzu eta denbora gehiago eskatzen du. Gizarte-aniztasuna dagoen inguruneen kudeaketak baliabide gehiago behar ditu klase ertaineko bertako ikasle osatutako ingurune homogeneoekin alderatuta. Premia horien aurrean, ikastetxe askok luzaroan sentitu dute hezkuntza-administrazioaren aldetik erantzun egokirik ez dutela jaso. Horixe da, besteak beste, irakasle askok ikastetxe horietan lan egin nahi ez izatearen eta klaustro barruko mugikortasun handiaren arrazoi nagusietako bat. Horrez gain, zailtasun handiak daude zuzendaritza-talde egonkorrek eta motibatuak osatzeko prest dauden pertsonak aurkitzeko. Askotan aipatzen da prestakuntza eta esperientzia gehien duen irakasleria dela konplexutasun handiko ikastetxeetan aritzeko egokiena, baina, ikusten ari garenez, hori ez da beti betetzen.

ZEIN ONDORIO DITU?

Ikasleak jatorriagatik eta diru-sarrerengatik bereiztea diskriminatzailea da, eta ondorio negatiboak ditu ikasle diskriminatuentzat. Baina ondorio kaltegarri hauek gizarte osora zabaltzen dira.

Izan ere, segregazioak hezkuntza-ikerketek ondo dokumentatutako eraginak ditu. Kalte egiten dio gizarte-kohesioari, desberdinen arteko harremanetan hutsunea sortzen duelako: bizikidetza esperimentatzeko eta ikasteko aukera galtzen da, baita kulturarteko gaitasunak garatzeko aukera ere -eta horretarako egokiena den ingurunea eskola da-. Elkar ezagutzea, beldurra galtzea, elkarlana, adiskidetasuna... hau guztia galtzen da.

Bestalde, desabantailan dauden ikasleen kontzentrazioak errendimendu akademiko txikiagoa izatea dakar; aldiz, errendimendu

hori handiagoa litzateke ingurune heterogeneoago batean, "ikaskide-efektu" edo "parekoen efektua" deritzonaren ondorioz, abantaila sozialetik abiatzen diren ikasleei inolako atzerapen akademikorik eragin gabe. Are gehiago: ingurune horietan, abantaila sozialetik abiatzen diren ikasle horiek ere ikaskuntza garrantzitsuak izango lituzkete, aniztasunik gabeko testuinguruetan ezinezkoak direnak. Segregazioak desabantaila gehiago eta urruntasun sozial handiagoa sortzen ditu, eta, ondorioz, diskriminazio modu bat da. Pentsatzekoa da segregazioaren ondorioak arintzeko "adabaki" edo "petatxu" bidezko konpentsazio-neurriak ezartzea garestiagoa izan daitekeela hezkuntza-sistemarentzat eta gizartearentzat oro har, hasiera-hasieratik ikastetxe heterogeneoago eta ez horren segregatuetan inbertitzea baino.

Bestalde, ikastetxeek eta irakasleek ahalegin handia egin arren, ikasle segregatuek zailtasun handiagoak izango dituzte euskara eta euskal kultura bere sentitzeko, bertako ikasleen presentzia ia erabat ezabatuta dagoenean. Nola eska dakieke hainbestetan aipatzen den "integrazioa" bakarrik uzten diren ikasleei, integratu beharreko ikaskiderik gabe?

Paradoxikoki, gizarte-konpromiso handiagoa erakusten duten eta immigrazio-testuinguruetan eta desabantailan dauden hurrekin lan egiteak dakarren erronka hezitzaile, sozial, linguistikoa eta kulturala beren gain hartzen duten ikastetxeak estigmatizatuak izan dira. Klase ertaineko familia autoktono batzuek ihes egin dute handik, eta horrek segregazioa areagotu du. Zentro horiekiko aitorten sozialik eza ere gure gizartean -eta beste batzuetan- naturalizatu den beste fenomeno bat da, balio sozial handiko zereginen diharduten eskolak gutxiestea "normala" balitz bezala.

"Ez gaitzen inozoak izan. Segregazioa ez da hezkuntzaren kalitatea hobetzea besterik bilatzen ez duten hezkuntza-politika zintzoen nahi gabeko albo-kaltea, zapalkuntza ekintza kontziente eta deliberatua baizik"

Euskal gizartearentzat hain garrantzitsua bada euskararen berreskurapena eta normalizazioa, geure buruari galdetu beharko genioke nola litekeen ikasleak euskalduntzen lehen lerroan ari diren ikastetxeek egiten duten lanak -ia guztiak D ereduko eskola publikoak- merezi duen aitorten soziala ez jasotzea.

ZEINTZUK DIRA NEURRI POSIBLEAK?

Gehiagi ez luzatzeko ikastetxeak desegregatzeko helburua lortze aldera gehien azpimarratzen diren neurri batzuk baino ez ditut aipatuko.

Oinarritzko neurrietako bat benetako doakotasuna da, hau da, familiei kuotarik ez kobratzea. Hori lortzeko moduak ez du eragileen arteko adostasunik lortzen: alde batetik, eskola itunduek jasotzen dituzten funtsak handitzeko beharra ikusten da, familien ekarpen ekonomikorik behar izan ez dezaten;

baina bestetik, itunpekoaren gainfinantzaketaren beldurra ere badago, baita kobrantzak dakartzaten zerbitzu eta estrategia informalak mantentzearen arriskua ere. Zentro batzuetako luxuzko instalazioen mantentze-kostuak ere zalantzak sortzen ditu.

Beste neurri garrantzitsuenetako bat matrikulaziorako udal-bulegoak sortzea da, familiek beharrezko informazioa eta laguntza jaso ditzaten eta seme-alabak bertan matrikultatu ahal izan ditzaten, ikastetxe zehatzetara joan beharrik izan gabe eta segregazio informaleko prozesuak jasan gabe (informazio falta, harrera eskasa, beste eskola batera joateko gomendioa...).

Ituntze unibertsalarekin amaitzea ere maiz aipatzen den neurri bat da. Gaur egun arte, Hezkuntza Sailak baldintzarik gabe onartu ditu ikastetxe eta ikasgela ituntzeko eskaerak guztiak. Horren aurrean, administrazioak zentroak beren inplikazio sozialaren arabera finantzatzea proposatzen da, hau da, gizartearen premiei ematen dieten erantzunaren eta aniztasunaren arretaren arabera.

Eskola-plaza kopurua mugatzea ere beharrezko neurritzat jotzen da. Gaur egungo testuinguruan, jaiotza-tasa baxuak gero eta plaza gehiago uzten ditu bete gabe, eta datozen urteetan ikasgela edo ikastetxe batzuk ixtea aurreikusten da. Zeintzuk izango dira? Plazen gaineskaintza ahalbidetzeak, familia batzuei -kapital ekonomiko eta kultural handienekoek- mugarik gabeko aukeraketa egiteko bide emanez, segregazioa areagotzen du.

Argi esan behar da: kontua ez da "etorkinak eskoletan banatzea", hainbat eragile eta agintarik uste duten bezala; helburua da ikasle guztien banaketa orekatuagoa lortzea ikastetxe guztietan, eta,



bereziki, bertako jatorria duten ikasleena. Premisa hori gaizki ulertzen bada eta ikasle zaugarriak bakarrik birbanatzen badira, gerta daiteke, oro har ikasle kopurua jaisten ari den egungo egoeran, orain arte ikasle zaugarriak izan ez dituzten ikastetxeak prest agertzea batzuk jasotzeko. Horrela, ikastetxe segregatuek egungo ikasleak galduko lituzkete, baina, aldi berean, ez litzateke bertako eta egoera sozial hobean dauden ikaslerik matrikulatuko. Horrek ondorio kaltegarri eta aurreikusgarria izango luke ikastetxe hauetan: urteetan haur zaugarriekin lan-hezitzailea egin ondoren, ikasleak kendu eta ikasgelak ixtearen arriskuan bere gain hartuko lukete.

Beste neurri batzuk ere aipatu ohi dira: esaterako, eskola bakoitzak baremazioan matrikula-eskaerei ematen dizkien puntuak ezabatzea, sarritan gizarte-aniztasuna mugatzeko erabiltzen direnak;

eskola-eremuen berrantolaketa; epez kanpo ikasturtean zehar iristen den ikasleen banaketa orekatua; gela eta ikastetxe bakoitzak har dezakeen gehieneko ikasle kopurua ezartzea; eta ikasturtean zehar iritsitako ikasleentzat plaza erreserbak egitea ikastetxe guztietan. Neurri horiek guztiak “eraldatzaileak” edo “desegregatzaileak” dira, eta “konpentsazio” neurriekin konbinatu behar dira, hau da, segregazioaren ondorioak arintzeko bitartekoekin. Azken gisa honetakoak dira gaur egun martxan dauden aniztasunari arreta eskaintzeko hainbat programa, hala nola, Hamaika Esku, EUSLE, Bidelaguna edo Hizkuntza Indartzeko Programa.

Benetan aniztasuna ikastetxe gehienetara iritsiko balitz, kontuan hartu beharko litzateke ikastetxe horietako batzuek beharko luketen prozesua benetan inklusiboak izango diren kultura eta giroa garatzeko; familia eta ikasle berriak gustura

senti daitezen eta bertan jarraitzeko gogoz egon daitezen.

Álvaro Ferrer eta Lucas Gortazarren hitzetan, gaiari buruzko 2021eko argitalpen batean: “Eskola-segregazioa murriztea politikoki lan konplexua da, bete-betean ukitzen baititu familien interesak, bereziki klase ertainekoenak. Segregazioaren eta askatasunaren arteko binomioaren inguruko eztabaida eta politikak gatazka suak dira. Eta, ondorioz, zenbait neurrik irabazleak eta galtzaileak dituzte”.

ETA ETORKIZUNEAN ZER?

Datozen urteetan, ikastetxe askotan ikasle hauek bertan egotea nahi ez den ikasleria izaten jarraituko dute? Eszenatoki aldaketa baten aurrean gaude. Jaiotza-tasa behera egiten ari den garai honetan -eta horrek, aipatu bezala, datozen urteetan ikasgela eta, agian, ikastetxe batzuk ixte esan nahiko du- eta, datuen arabera, gero

“Eskola-segregazioari aurre egiteko, dokumentazioa eta araudi berria sortzea baino garrantzitsuagoa da benetako borondate politikoa izatea neurri eraginkorrak martxan jartzeko”

eta ikasle gehiagok ama atzerritarra dutelarik; agian, orain arte ikastetxe askotan gutxi desiratuak izan diren ikasle horiek “interesgarri” bihurtuko dira etorkizun hurbilean, eta haiek erakartzeko kanpainak abiaraziko dira, orain arte segregatuta egon diren ikastetxeak husteko arriskuarekin. Nola jokatu du hezkuntza-administrazioak honen aurrean? Lerro hauek idazteko unean, EAErako hezkuntzaren inguruko lege berri bat idazteko prozesua martxan dago, eta alderdien, sindikatuen eta beste eragile batzuen arteko negoziazioak gertatzen ari dira. Era berean, dokumentu mota desberdinak argitaratzen ari dira, bai eta oinarritzko hezkuntza gaiei buruz komunikabideetan etengabe adierazpenak egiten ere. Une honetan, adierazpen horietan, segregazioari aurre egitea gai nagusietako bat bihurtu da. Hala ere, adierazpenak askotan adierazpen hutsean geratzen dira. Lege berria iritsi eta abiarazi arte, oraindik denbora luzea igaroko da. Posible litzateke hezkuntza-administrazioak dagoeneko estilo berri bat erakustea arlo honetan, asmoen formulazio berriari sinesgarritasuna emango liokeena. Estilo hori, jakina, neurri eraginkorrak ezartzean oinarritu beharko litzateke. Gaur-gaurkoz, hori ez da gertatzen ari.

Geure buruari galdetu beharko genioke ea lege berria egungo lege-esparrua baino eraginkorragoa izango den segregazioari aurre egiteko; izan ere, gaur egungo araudian ez dago pairatzen ditugun segregazio-egoerak justifikatzen edo sustatzen dituen inolako elementurik. Nahikoa da gogoraraztea egungo lege-esparruak dioela derrigorrezko hezkuntza doakoa izan behar dela funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan; eta hori ez dela betetzen, ezta betearazten ere. Bestalde, Kataluniako komunikabide guztiek

duela hilabete gutxi argitaratutako albisteen arabera, 2019ko martxoan Eskola Segregazioaren aurkako Ituna sinatu zenetik hainbat urte igaro diren arren, datuek erakusten dute segregazioa nabarmen handitu dela. Arrazoa? Administrazioak ez dituelako martxan jarri adostutako neurriak, ezta horiek gauzatzeko hartutako konpromisoak bete ere. Badirudi gauza nahiko argia dela: eskola-segregazioari aurre egiteko, dokumentazioa eta araudi berria sortzea baino garrantzitsuagoa da benetako borondate politikoa izatea neurri eraginkorrak martxan jartzeko.

BUKATZEKO

Gogora ditzagun gaia sakon ikertu duten F. Javier Murillo eta Cynthia Martínez-Garridoren hitzak (2020, REICE aldizkaria): “Ez gaitezen inozoak izan. Segregazioa ez da hezkuntzaren kalitatea hobetzea besterik bilatzen ez duten hezkuntza-politika zintzoen nahi gabeko albo-kaltea. Eskola-segregazioa zapalkuntza ekintza kontziente eta deliberatua da [...]; bere bidez, boterea duten taldeek kolektibo minoritarioak bereizten, baztertzen eta kanporatzen dituzte, eta, horrela, kalitatezko irakaskuntza jasotzea eragozten zaie. [...] Hezkuntzako zapalduak ghettoetan sartuta dauden haur eta nerabeak dira, pobrezia-egoeran daudelako, beste herrialde batean jaio direlako, ijito-herrikoak direlako, gutxiengo etniko-kulturalen batekoak direlako edo desgaitasunen bat dutelako. Zapaltzaileak talde ekonomiko eta politikoak dira, segregazioa sortzen, laguntzen eta bultzatzen dutenak, edo egoera horrekin sortzen diren desberdintasunak konpentsatzeko bitartekoak jartzen ez dituztenak. Administrazio publikoak, hezkuntzakoak eta ekonomikoak, egoera horren erantzunkideak dira; egiten edo egiten ez dutenagatik, egoera hori sustatzeagatik edo ez saihesteagatik.”

Eskolaz kanpoko jarduerak, kohesio sozialerako aukera galdua

Mikel Garcia Idiakez

Argia, 2022/10/19

“Heziketaren parte direlarik, eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea demokratizatzea eta unibertsalizatzea da herrialde bezala dugun erronka”

“Heziketaren parte direlarik, eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea demokratizatzea eta unibertsalizatzea da herrialde bezala dugun erronka”.

Garbi du Bergarak: gazte horietako ugarik gustura hartuko luke parte jardueretan, benetako aukera izango balute. Udan, esaterako, gimnasio bonua izan zuten eta gazteek aprobetxatu zutela kontatu digu, baina bonua moztu zietenean goizetik gauera gimnasiora joateari utzi zioten. Eta beste adibide bat, egoeraren tamaina hartzeko: gazte bat du gogoan, ordaindu behar ez zuen futbol taldean parte hartzen zuena, baina entrenamenduetan baino ez, asteburuetako partiduetara ez zen joaten, ez zuelako dirurik ekipamendurako ezta modurik batetik bestera desplazatzeko ere. Azken finean, zailtasun ekonomikoei batu ohi zaie hainbatek ez duela erraza astean zehar hiritik mugitzea –ez haur edo gazteak berak, ez haren familiak umea batetik bestera eramatea–.

Gainera, jarduera bakarrean ez, astean eskolaz kanpoko bizpahiru eta baita hiruzpalau ekintzetan ere ematen du izena hainbatek, horrek

guztiak duen kostu ekonomikoarekin. Eta ekintza, klub, elkarte... batetik besterako aldea ere esanguratsua da maiz –ikusitako beheko infograma–, batzuk subentzionatuta daude eta beste batzuk ez, ekintza batzuk oinarritzko eta beste batzuk luxuzko artikulatu baidira.

Lagunen eta ingurukoen eragina ere faktore inportantea da, jarduerak aukeratzeko garaian. Hala dio Oihane Vicentek. Euskal dantzak eta sormen dantza ematen ditu berak, azken horiek 30-35 euroan hilabeteko (ordubeteko saioa astean) eta jakin badaki ahalegin ekonomikoa eskatzen duela, hainbat familiarentzat muga izango dela seme-alabak klasetara animatzeko. Administrazioak esku hartzen duenean, bestelakoa da emaitza: “Udalak eskainita eman dudana azken dantza tailerreko izen-ematea 3 euroan izan da”, azaldu digu Vicentek.

BIGARREN FAMILIA

Heziketan zutabe inportantea dira eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza formalaren osagarri eta aberasgarri. Hala berretsi digute erreportaje honetako solaskideek, eta ondorioz, aukera

berdintasuna ez bermatzea eta jende bat sare hauetatik kanpo uztea diskriminatzailea da. Garapen pertsonalerako, autoestimurako, emozioak gestionatzeko, hezkidetzarako, harremanetarako, elkar zaintzarako, alde ludikoan sakontzeko, euskara espazio informaletan indartzeko... aukera paregabea izan daitezke. Norbere potentzialtasun, trebezia eta motibazioei bide ematen diete eskolaz kanpoko ekintzek, “eta kanpoan geratzeak esan nahi du agian zure gaitasun eta talentu bat mugatzen aritzea”, dio Vicentek. Batzuetan, arlo akademikoari lotutako jarduerak dira, eskolan ematen diren gaietan aurreratu nahian gurasoen arteko lehia eta gurpil zoro bilakatzeraino, eta bazter geratzen direnentzako ondorioa ere garbia da: are atzerago geratzen dira ibilbide akademikoan.

Kanpoan geratzea ere bada sareak galtzea, “halako taldeetan parte hartzeak lagun talde berriak eraikitzea” dakarrelako, dio Vicentek. Eskolaz kanpoko jarduera pribatuen pisua handia da gure gizartean, asko dira burbuila horretan mugitzen direnak eta beste asko hortik at daudenak, gizarte kohesiorako aukera bikaina izan zitezkeenak gizarte hausturarako tresna bilakatuz. Kale hezitzailearen begiradak laguntzen du ulertzen jarduera hauen garrantzia: “Haurrak ez doaz bakarrik futboleko edo balletan aritzera, on asko egiten die horrelako zerbaitek, faktore ugari landu daitezke, eta halako talde baten parte sentitzea funtsezkoa da askorentzat; are gehiago, beraien bigarren familia bilakatu daiteke batzuetan, zentraltasun handia hartzen du beren bizitzetan, zer esanik ez nerabezaroan”, dio Bergarak. “Bizitza ordenatu bat eraikitzeke ere oso inportanteak dira jarduera hauek. Kale hezitzaileok inbiltzen den gazteetako askok ez du zeregin finkorik, ohituta daude

“Eskolaz kanpoko jarduera pribatuen pisua handia da gure gizartean, gizarte kohesiorako aukera bikaina izan zitezkeenak gizarte hausturarako tresna bilakatuz”

txikitatik “bakarrik” egotera, eta ordena hori, egitura hori galtzen duzunean, zure burua gizarte saretik kanpo ikusten duzu, aparte; pertsona horrek zaila du bere lekua bilatzea, galduta bukatzen du sarri”.

DESOREKA NOLA OREKATU?

Hitzez ematen diegun balioa praktikara eraman nahi badugu, ez al lukete ume guztiek aukera eta eskubidea izan behar aisialdi antolatuan parte hartzeko, etxe bakoitzeko ekonomia kontuan hartuz? Ez al litzateke eskaintza publikoa handitu behar, ez al litzateke eskaintza pribatuari irizpide batzuk markatu behar, inor kanpoan ez uzteko? Izan ere, ukaezina da elkarte, klub eta akademia pribatuek nagusitasun handia dutela eskaintza orokorrean, eta haur eta gazteen heziketaren parte diren heinean, pentsatzekoa da jarduera pribatua izan arren balio eta oinarri batzuen arabera aritzea eskatu beharko litzatekeela. Baina tentuz erantzun digute solaskideek:

ez da erraza eremu pribatuan egiten dena kontrolatzea, eta delikatuak da horietan administrazioak eskua sartzea. Orduan, zer egin?

Elkarri lotuta dauden bi bideren alde egin dute galdekietak: diru publiko lagundutako jarduera gehiago antolatzea haur eta gazteentzat, eta ikastetxeetako guraso elkarteek bideratzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak indartzea. Administrazioak merkatutik kanpo dauden jarduerak eskaintzeak gizarte desorekak gaiztatzeko lagundu dezakeela dio Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte (EHIGE) koordinatzaileak: “Udal batzuek halakoak antolatzen dituzte puntualki, baina nabari dugu interes gutxi dagoela erakunde publikoen aldetik; maiz baliabideak eta ondo prestatutako profesionalak falta dira, arlo ez-formala gutxi baloratuta dagoelako maila akademikoan”. Adibide positiboa jarri digute Hezten aisialdi elkartetik, eurek dinamizatzen dituzten FamiliaOla eta Parketarrek aisialdi ekimenak (jolasak, tailerrak, txangoak...) arrakastatsuak direla eta profil anitzeko jendea erakartzen dutela baitiote. Ekimena eurek gestionatu baina udalek eskaintzen dute, eta udalek jarritako diruari esker doan hartzen dute parte haurrek.

Gako interesgarria jarri digute mahai gainean Bergarak eta Vicentek: sarean lan egitearen onurak. Adibidez, herriko udala bertako kale-hezitzaile, gizarte zerbitzu, gazteleku, aisialdi elkarte eta eskolaz kanpoko jarduerekin egon daiteke harremanetan, haur eta gazteen beharrak nola ase hobeto bideratu aldera.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARAKO BEKAK

Diskriminazioaren aurrean, klub eta akademia pribatuetan baino errazagoa dirudi esku hartzea

ikastetxean antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretan. Horregatik, alternatiba ona dela esan digute solaskideek: haurra ez da leku batetik bestera eraman behar eta instituzioek subentzionatuz gero, eskaintza merkea egitea legoke, denei irekita.

Gaur egun, baina, jarduera horietan ere bada segregaziorik. Aitor Idigoras bere seme-alaben ikastetxeko guraso elkarteetan dago eta kezka agertu digu: “Ekitate eta berdintasun printzipioa mahai gainean presente izaten dugu ekintzak antolatzerakoan, baina ez du soluzio samurrik: badakigu familia askok ez duela ekintza hauetan izena ematen, baina guretzat oso zaila da zergatia jakitea, noiz den ekonomia zailtasunengatik eta noiz beste faktoreren batengatik, eta ez dugu asmatu modu bideragarriarik informazio hori eskuratzeko. Jarduerai gehieneko prezio bat, muga bat, jartzen ere saiatzen gara, baina ekintza guztiekin ez da erraza, kostu bat dutelako”.

Jarduerak merke –edo doan– eskaintzeko, administrazioaren inplikazio handiagoa eskatu dute Aitor Idigoras eta Lurdes Imazek. Azken honi galdetu diogu ba al dagoen bekarik edo dirulaguntzarik espreski eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, egoera zaurgarriagoan direnei zuzenduta, baina oro har ezetz erantzun digu. Guraso elkarreentzat bai, bada dirulaguntzarik, eta modua izan daiteke jarduerak subentzionatu eta kalitatezko eskaintza merkea bideratzeko, baina laguntza publiko hauek oso txikiak direla azpimarratu digu Imazek, “800-1.200 euro bi lerroko ikastetxe batean, Eusko Jaurlaritzatik”. Udalen artean zabalagoa da panorama: “Batzuek laguntza onak ematen dituzte, baina tramitazioa konplexua da eta laguntza hauek normalean ez dituzte kontuan hartzen behar bereziak

“Ez al lukete ume guztiek aukera eta eskubidea izan behar aisialdi antolatuan parte hartzeko, etxe bakoitzeko ekonomia kontuan hartuz?”

dituzten ikasleak, zeintzuek laguntza pertsonalizatua behar duten horrelako jardueretan parte hartu ahal izateko”.

Ikastetxe batetik bestera ere, handia izan daiteke aldea, eta eskolaz kanpoko jardueren eskaintza oso urria eta pobrea da hainbatetan, gurasoek adibidez antolakuntzan inplikatzeko nahikoa denbora eta baliabide ez badute –prekaritatean diren familia asko dituzten ikastetxeetan, esaterako–. Laguntza publikoak ikastetxe horiek lehenetsi beharko lituzkeela aldarrikatu du Idigorasek: “Udalak laguntza zuzena eman beharko lieke atzean geratzen diren eskolei, begiraleak ere jarritz, edo guraso elkarteak egiten ez badu, udalak antolatu ditzala jarduerak eskola horietan, gainerako ikastetxeen pare”.

KALEA ETA AKADEMIA

Beste muturrerako joera ere nabari da hainbatetan: batzuetan gauza gehiegitan ematen dute izena seme-alabek, ordu asko igarotzen dituzte ekintza bideratueta, eta azkenerako umeak estresatzen bukatu dezakegu, edo haurrek amaitu dezakete aisialdi librean zer egin ez dakitela, jolasteko eta aspertzeko gaitasunik gabe. Oreak inportantea dela azpimarratzen dute adituek, egunero denbora libre zati bat gordetzea jolasteko, egunean egindakoa barneratzeko, sormenerako, etxean elkarrekin gauzak egiteko... “Jolas libreari ere garrantzia eman behar zaio, gaur egun dena oso bideratuta daukagulako, plazez eta parkeek garai bateko garrantzia berreskuratu beharko lukete”, dio Hezten elkarteko Ainhoa Pinedok. Baina honetan ere, agerikoa da desoreka: jarduerak mugatuz aisialdia lasaiago hartzea hautatu dezakete batzuek, baina arratsaldeak kalean igarotzetik jarduera antolatuen sarean murgiltzeko bidea malkartsua da gizartean zaurgarrien direnentzat.

4

Euskara bermatu eta hedatzeko premia

Hezkuntzaren ekarpena euskararen biziberritzean

Iñaki lurrebaso

[Testu hau Iñaki lurrebasok 2023ko apirilaren 22an ELAk antolaturiko "Hezkuntza eta hizkuntza" jardunaldietan emandako hitzaldiaren laburpen eskematikoa da. Proposatzen ditugun erronken artean euskarak duen garrantzia eta indarberritzeko ematen dituen gakoek duten gaurkotasuna aintzat harturik hemen txertatzea egoki ikusi dugu. Hitzaldiaren laburpen osoa jasotzen duen testua Gai Monografikoak 59 Hizkuntza eta Hezkuntza argitalpenean aurki dezakezu]

**"Egoera oso
kezkagarria da eta
eskolak bakarrik
ezin du. Esnatu
beharra daukagu,
jauzi orokorrago
baten baitan egin
behar da aurrera"**

EUSKARAREN EGOERA: IRAGANETIK GAURDAINO

Euskarak XX. mendean ordezkapen prozesu latza bizi izan zuen, 1971n behea jo zuelarik. Hala ere, 60ko hamarkadan hasi zen indarberritze prozesua (euskara batua, ikastolak...), eta gurasoen hizkuntza transmisio-joera aldatu zen: seme-alabak euskaraz hezteko hautua zabaldu zen. 1971-2001 artean bilakaera positiboa izan zen, baina azken 20 urteotan aurrerabideak

eten egin dira eta gaur egun egoera geldirik dago, norabide argirik gabe.

EUSKARAREN OSASUNAREN SEI ARDATZ

- **Hizkuntza gaitasuna:** euskaraz hobeto moldatzen diren herritarrak %7 besterik ez dira. Diskurtso baikorren aurka, gaitasun maila eskasa da.
- **Erabilera:** %12 ingurukoa da kalean, eta harreman sareak eta



hiztunen erraztasuna kontuan hartuz, uste baino altuagoa. Euskaldun aktiboek erabilera ia osoa euskaraz egiten dute.

- **Motibazioa eta atxikimendua:** gaitasunetik eta erabileratik gorago dago, eta horri esker iraun du euskarak. Hala ere, azken urteetan atzerapausoak sumatzen dira.
- **Transmisioa:** gero eta guraso gehiagok transmititzen dute euskara, baita euskara lehen hizkuntza ez zutenek ere. Hori joera berri eta positiboa da.
- **Hizkuntz bilakaera:** Euskal Herrian bizitzeak oro har erdaldundu egiten du. Euskaldunek erraz galtzen dute nagusitasun erlatiboa; erdaldunek, aldiz, oso gutxitan irabazten dute euskararena.
- **Testuinguru demolinguistikoa:** herritarren %90 erdara nagusi den eremuetan bizi dira, arnasguneak %4raino mugatuta. Arnasguneak galtzen

ari dira, eta euskalduntze orokorra gune horiek indartu gabe ez da posible izango.

HEZKUNTZAREN EKARPENA

Eskola izan da belaunaldi berriak euskalduntzeko eragile funtsezkoa. Emaizta positiboaren artean daude: etxetik euskaldunak ziren haurrak formalki trebatzea, eta etxetik erdaldunak ziren askok eskolan euskara ikastea. Hala ere, mugak nabarmenak dira: inguru erdaldunetan hazitako haurrek ez dute behar bezalako gaitasun eta erabilera-mailarik lortzen, eta D eredua bera ez da nahikoa. Hauek izan daitezke lehentasunez jorratu beharreko hainbat neurri:

- **Murgiltze eredua orokortu eta indartu:** D eredua eraginkorrago bihurtu behar da, batez ere eremu ez euskaldunetan.
- **Ikasle taldeen osaketa birplanteatu:** hizkuntza ohituretan eragin zuzena du, eta arnasguneak gorde eta sendotu behar dira.

- **Erdara nagusi den eremuetan dinamika berriak garatu:** euskaraz bizi diren gutxiengoak handitu eta indartu behar dira.
- **Ahazkotasuna eta adierazkortasuna landu:** ez soilik eskolan, baita familian, kulturgintzan eta kalean ere.
- **Soziolinguistikazko prestakuntza:** irakasleei eta ikasleei tresnak eman behar zaizkie egoera ulertzeko eta hautu kontzienteak egiteko.
- **Kultura transmisioa:** hizkuntza ez da isolatua, euskal kultura bere osotasunean transmititu behar da.

Egoera oso kezagarria da eta eskolak bakarrik ezin du. Esnatu beharra daukagu, jauzi orokorrago baten baitan egin behar da aurrera. Euskara biziberritzeko bidea zaila eta gorabeheratsua da, baina indarguneak eta aukerak baditugu. Egungo egoeraren larritasunaz kontziente izan, eta jauzi kolektibo baten bidez, bide berriak asmatzea da erronka nagusia.

D eredua baino hoberik ez dago

Mikel Basabe Kortabarria

Argia, 2022/01/27

“Behar dugu, bai, irakaskuntza-metodologia errotik hobetu eta euskararen erabilera (ahozkoa zein idatzizkoa) helburu gisa ipini. Baina ez ukitu euskara hutsezko eredua”

Berriak Hizkuntza Politikarako sailburuorde Miren Dobarani eginiko elkarrizketan pare bat gauzak eman zidaten atentzioa. Lehenengoa, zein erraz jotzen ditugun egiazat benetakoak ez direnak. “Eremu akademikoan eta formalean euskara bermatuta dago”, dio sailburuordeak. Bada ez: Arabako eta Bizkaiko lanbide-heziketan ez dago bermaturik. Jaurlaritzak ez du bermatzen. Datu bat: 2010-11 ikasturtean, erdi mailako zazpi ziklo ikas zitezkeen euskaraz Araban. Aurten sei. Duela hamar urte, bigarren hezkuntzako ikasleen %35ek ikasten zuen D ereduan Araban; aurten %53,83k (eskola publikoan, %79,23k). Jaurlaritzak ziurtatu du euskara Arabako institutuetan, baina lanbide-heziketan ahalegindu ere ez da egin.

Beste baieztapen aipagarria are arriskutsuagoa iruditzen zait: “[euskara nahikotasunez ikasteko] ez du balio D eredu batek. Ez da nahikoa. Horregatik proposatu nuen ikastetxekako hizkuntza proiektuak egitea, kontuan hartuta ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen ezaugarriak”.

ZATIKA:

“Ez du balio D eredu batek”. Jakina D eredua ez dela nahikoa: ez dago nahikoa den eredurik. Baina D ereduak baino emaitza hoberik ez du beste ezerein eredu eman, ematen, ezta emango. 3L eredua porrot izugarria izan da (ebaluazio diagnostikoaren datuek frogatzen dute).

“Ez da nahikoa”. Ados: eskola bera ez da nahikoa. Eta ados, hurrengo erantzunetan Dobaranek proposatutakoekin: eskola ez denez nahikoa, euskara eskolatik kanpora atera behar da, aisialdira, modu antolatu, sistematiko eta bitartekoz egoki hornituan.

“Ikastetxekako hizkuntza proiektuak egitea, kontuan hartuta ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen ezaugarriak”. Hara! Gune soziolinguistikoa? Ba al dago EAEn derrigorrezko eskola-aldia amaitzean gaztelaniaz nahikotasunez ez dakien gazterik? Ez, ezta? Orduan? Erdalguneetan, ezin D ereduan baino euskara gehiago eskaini. Euskalguneetan, zer kalte dakar? Ala Oiartzungo 16 urtekoek ez dakite nahikoa gaztelaniarik eta ikastordu gehiagoren premian daude?

Herritar elebidunak hezteko, esperientziak diosku eskola publikoa dela apustu sendoena, eta euskara hutsezko irakaskuntza nahitaezko tresna, zeina, gune soziolinguistikoaren arabera, eskolaz kanpoko ahaleginarekin gehiago ala gutxiago osatu beharko den.

Behar dugu, bai, irakaskuntza-metodologia errotik hobetu eta euskararen erabilera (ahozkoa zein idatzizkoa) helburu gisa ipini. Baina ez ukitu euskara hutsezko eredua, 3Lk erakutsi baitigu horrek zer dakarren: euskara gutxiago jakitea.

5

Berrikuntza ala hezkuntzaren merkantilizazioa

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza: mistifikazio pedagogiko bat

Nico Hirtt

L'école démocratique ,39

[Artikulu 2009ko irailean Nico Hirttek L'école démocratique aldizkarirako idatziriko artikulu luzearen laburpena da eta bere gaurkotasun eta garrantziagatik argitalpen honetan sartu nahi izan duguna]

1. JATORRIA ETA GARAPENA

Gaitasunen araberako hezkuntza planteatzea ez da hausnarketa pedagogiko sakon baten emaitza, ezta hezkuntza-ikerketa demokratiko baten emaitza ere. 80ko eta 90eko hamarkadaz geroztik kapitalismoak izan dituen eraldaketekin estuki lotuta dago haren hedapen globala, eraso neoliberal betean. ELGAK, Munduko Bankuak edo Europako Batzordeak, esaterako,

hezkuntza ekonomia globalizatuaren beharretara egokitzeko estrategia gisa sustatu dute.

Hezkuntza-eremutik sortu beharrean, konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua enpresa-munduak sartu zuen lanbide-heziketan; izan ere, enpresa-munduak eskulan malguagoa eta prestakuntza-kostuen murrizketa behar zituen. "Zereginen familiak" edo "gaitasunen erreferentzialak"

bezalako kontzeptuak enpresa pribatuan sortu ziren eta pixkanaka irakaskuntza orokorrera eraman ziren. Logika sinplea izan zen: enpresak ordaintzen badu bere langileak prestatzeagatik, hobe du eskolak zama hori bere gain hartzea.

Europako Parlamentuak joera hori indartu zuen 2000-2006 aldian, funtsezko gaitasunen esparru komun batekin, herritar orok “bizitzan zehar ikasteko” eta “enplegua lortzeko” menderatu behar zuena definitzen zuena. Hezkuntzak ez zuen gehiago jakintzan zentratu behar, enplegarritasunean baizik.

2. GAITASUNEN DEFINIZIOA ETA BARNE-LOGIKA

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak berriz definitzen du hezkuntza ekintza-gaitasun eraginkor eta egokitzailearen garapenera bideratutako prozesu gisa. Gaitasunak ez dira jakintzak metatzera edo trebetasun teknikoak eskuratzea mugatzen. Egoera berriak edo aldakorrak konpontzeko aukera ematen duten ezagutza, gaitasun, jarrera eta portaeren konbinazio integratu gisa aurkezten dira.

Aplikagarritasuna da gakoa. Kontua ez da jada fisika, historia edo matematika irakastea, baizik eta ikasleak “egoeren kategoria” baten aurrean “eraginkortasunez” jarduteko gai izatea. Horrela, gaitasuna kontzeptu operatibo, funtzional eta ebaluagarri bihurtzen da, edukiak ataza-logika baten mesedetan desegiten dituenak. Jakintzak, diziplinak, teoria... dena bigarren mailara pasatzen da.

Gainera, azpimarratzen da egoerek berriak izan behar dutela, eta horrek ezagutza sakonari lotuta ez dagoen egokitzeko gaitasun orokorra dakarrela. Ikasle-figura bat idealizatzen da, eta “baliabideak”

“Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua enpresa-munduak sartu zuen lanbide-heziketan; izan ere, enpresa-munduak eskulan malguagoa eta prestakuntza-kostuen murrizketa behar zituen”

aplika ditzake nahitaez ulertu gabe, jakintza sendorik eraiki gabe. Subjektu kritikoak osatu beharrean, eragile eragileak entrenatzen dira.

Ikuspegi hori pentsamendu konduktistatik eta kognitibismo funtzionalistatik elikatzen da, benetako konstruktibismotik baino gehiago. Lehenetsia ez da ikaskuntza esanguratsua, baizik eta errendimendu ikusgarria, neurgarria eta erabilgarria. Eta horrela, hezkuntza-ekintza dimentsio emantzipatzaile guztietatik husten da.

3. LAN-MERKATUAREN HELBURU EKONOMIKOA ETA EGITURA

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua ezin da bereizi kapitalaren logikatik. Gainprodukzioak, egiturazko krisiak eta informazioaren teknologien aurrerapenak markatutako ekonomian, enpresek langile moldagarriak behar dituzte, etengabe ikasteko eta zeregin batetik bestera pasatzeko gai direnak, prestakuntza-prozesu luzerik behar izan gabe. Jakintza sendoetan

trebatutako langile espezializatua malgutasunerako oztopo bihurtzen da.

Eredu ekonomiko berri horrek lana errotik berrantolatzea eskatzen du: kontua ez da zereginak banatzea, baizik eta erantzukizun mugikorak, aldakorrak eta diziplina anitzekoak eskuordetzea. Horregatik, helburua ez da ezagutza handiak dituzten pertsonak prestatzea, baizik eta pertsona balioaniztunak, lanerako prest daudenak, lan-testuinguru desberdinetan “moldatzeko” gai direnak. Konpetentzia ez datza jakintza menderatzean, tresna berrietara, kontsigna berrietara eta ingurune berrietara azkar egokitzeko gaitasunean baizik.

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua oso ondo egokitzen zaio logika horri. Prestakuntza “eraginkorra”, “errentagarria” ahalbidetzen du, sakontasunean eta hausnarketa kritikoan inbertitu gabe. Eta are garrantzitsuagoa dena: prestakuntza hori iritzi publikoaren aurrean legitimatzeko aukera ematen du, aurrerapen pedagogikoa balitz bezala. Baina berniz modernista horren azpian, hezkuntza merkatuaren beharren mende dago.

4. GIZARTE-POLARIZAZIOA ETA HEZKUNTZAREN ZEREGIN BERRIA

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduaren engainurik handienetako bat da “ezagutzaren ekonomiari” erantzun nahi diola, benetan lan-merkatuaren polarizazioa laguntzen eta indartzen duenean. Gehien hazten diren enpleguak ez dira tartekoak edo kualifikazio handikoak, baizik eta zerbitzu-sektoreetako kualifikazio txikikoak, gaizki ordaindutakoak eta prekarioak. Bien bitartean, gutxiengo batek bai lortzen ditu goi-mailako lanpostuak.

“Horren ondorioa eskolako jakintzaren pobretze bortitza da. Ikasleek ez dakite funtsezko gertaerak kokatzen, ez prozesu historikoak ezagutzen, ez fenomeno zientifikoak ulertzen”



Testuinguru horretan, kompetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak hezkuntza-sistema duala ezartzeko aukera ematen du, argi eta garbi adierazi gabe. Irakaskuntza komuna mantentzen da adin batera arte (12, 14 edo 16 urte), baina hau nahita pobretzen da gutxieneko gaitasunetan zentratzeko. Horrela, denek curriculum bera jasotzen dute, baina curriculum horrek ez ditu jakintza zorrotzak transmititzen, baizik eta enplegarria izateko beharrezkoak diren trebetasunak soilik.

Eduki unibertsalak desagertu egiten dira. Denei historia, filosofia edo fisika aurreratua irakastea “xahuketa”, “ilusioa” edo “zentzugabekeria soziala” dela uste da, ELGAk zioen bezala. Eskolak ez du guztiak ahalik eta urrutien eraman nahi, bakoitza bere lan-helmugara egokitu baizik. Emaitza: haurtzarotik desberdintasun

sozialak erreproduzitzen eta kristalizatzen dituen sistema.

5. JAKINTZA BAZTERTZEA ETA EDUKIAK MESPRETXTAZEA

Kompetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduan, ezagutzek prestakuntza-balioa galtzen dute, eta “beharrezkoa denean” aplikatu beharreko tresna soilak bihurtzen dira. Ataza bat ebazteko aukera ematen badute bakarrik dira baliozkoak. Eguneroko bizitzan zuzenean erabiltzeko modukoa ez den jakite oro alferrikakotzat jotzen da. Horrela, curriculumetik kultura zientifiko, historiko, artistiko eta filosofikoaren zati handi bat ezabatzen da.

Irakasleek jarduera ikusgarriak baina hutsak diseinatu behar izaten dituzte: buletinak idatzi, kartelak egin, bideoak grabatu, erakusketak eraiki. Komunikatzeko entrenatzen dira ikasleak, jarduteko, baina ez

ulertzeko. Garrantzitsuena ez da jakitea, dakigula ematea baizik. Ez da kontzeptu bat menderatzea, baizik eta Interneten nabigatzen jakitea eta “informazioa bilatzea”.

Curriculum ofizialek modu adierazgarrian islatzen dute. Historia bezalako ikasgaietan, adibidez, edukiak zerrenda labur-laburretara mugatzen dira: kontzeptu lausoak, une giltzarriak, inolako egiturarik eta garapenik gabeak. Funtsezkoena ez da iragana ezagutzea, dokumenturen batekin “zereginak egitea” baizik.

Horren ondorioa eskolako jakintzaren pobretze bortitza da. Ikasleek ez dakite funtsezko gertaerak kokatzen, ez prozesu historikoak ezagutzen, ez fenomeno zientifikoak ulertzen. Prestakuntza zatitu egiten da, loturarik gabeko jardueretan desagiten da eta pertsona kritikoak, landuak eta emantzipatuak prestatzeko gaitasuna galtzen du.

6. “ZEHARKAKO” GAITASUNEN MITOA

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak egia eztaba daezinen kategoriara igo ditu zeharkako gaitasunak. Sormena, arazoak konpontzeko gaitasuna, ekimena, talde-lana, espiritu ekintzailea... diziplinetan eta edukietan ainguratu gabeko mantra gisa errepikatzen dira. “Gaingaitasun” horiek jakintzatik aparteko ezaugarri gisa aurkezten dira, pentsamendu kritikoa ezagutza historikorik gabe garatu ahal izango balitz bezala edo komunikazioa hizkuntzaren menderakuntzarik gabe posible balitz bezala.

Ikuspegi idealista horrek norbanakoaren “talentuaren” mitoan oinarritutako pedagogia elikatzen du. Irakasleak ez ditu jakintzak irakasten, baizik eta “talentuak deskubritzen ditu”, “ibilbideak laguntzen ditu” eta “gaitasunak estimulatu ditu”. Edukia desagertu egiten da, autoesplorazioaren, zeregin hibridoaren eta lankidetzaren proiektuen logika lauso batek ordeztuta. Gaitasun oro edozein testuingurutan aplika daitekeen eta aplikatu behar den dogma bihurtzen da, eta horrek diziplina-espezifikotasuna desmuntatzen du eta azalekotasuna sustatzen du.

Egia esan, mitifikazio horrek balio-aniztasunaren logika bati erantzuten dio: lehia zenbat eta abstraktuagoa izan, orduan eta egokigarriagoa da langilea edozein lanpostutara, enpresak moldagarriagoa. Horrela, zeharkakotasuna laneko xaflakortasunaren sinonimo bihurtzen da.

7. ANTIPEDAGOGIA, BUROKRATIZAZIOA ETA DESHUMANIZAZIOA

Paradoxikoki, konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza

“Eskolak iruditeria neoliberalak hautsi eta bere funtzio emantzipatzailea berreskuratu behar du”

planteamenduak, askatzaile gisa aurkezten denak eta ikaslearen zentratzen denak, aurrekaririk gabeko hipertrofia burokratikoak sortu du. Irakasleek gaitasunei, helburuei, adierazleei, errubrikeri eta ebidentziei dagokienez gauzatu behar dute beren praktika. Jarduera bakoitza justifikatu, ebaluatu eta dokumentatu egin behar da. Curriculumak mikrotareen, lorpen-adierazleen eta “jardunaren deskribatzaileen” sare bihurtzen da.

Kontrol-logika horrek irakasleak aurrez ezarritako gida-egile huts bihurtzen ditu, autonomia pedagogikoa kentzen die eta benetako berrikuntzarako aukera guztiak itotzen ditu. Ikasleek praktikan egiten dituzten zeregin “aktiboak” konpetentziak baliozkotzeko ariketa mekanikoak dira. Sormena desagertu egiten da dinamismo-fatxada baten atzean.

Jakintzak ez du irakaskuntza egituratzen; ebaluazioak bai. Egin daitekeela erakusteko lan egiten da, ez ulertzeko edo eraldatzeko. Hezkuntzaren prestakuntza-dimentsioa jarraipen, produktibitate eta emaitza neurgarrien enpresa-logika baten mende geratzen da.

8. AHOTS KRITIKO AKADEMIKOAK ETA SOZIALAK

Gogo ofizialaren aurrean, ahots kritiko ugarik mistifikazio teknokratikotzat salatu dute konpetentzietan oinarrituriko

hezkuntza planteamendua, eta agerian utzi dituzte haren ahulezia kontzeptualak eta ondorio negatiboak hezkuntza-praktikan.

Hura bultzatu zuen sistemaren barruan bertan, erreformista batzuek, hala nola Crahayk, hasierako jarrera zuzendu dute, eta konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua “benetako arazo bati erantzun okerra ematea” dela esan dute. Amalgama teoriko inkoherentea izatea aurpegiratzen zaio, aurrez aurreko psikologietatik ateratako ideia bateraezinak elkarren ondoan jartzen dituenak. Ez dio ikasketa sendoaren teoriari erantzuten, baizik eta “ilusio sinplifikatzaile” gisa jarduten du.

Arlo praktikoan, konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua curriculumek nahasmena, irakaskuntzako ezinegona, hezkuntza-zentzua galtzea eta diziplina-edukia bertan behera uztea eragin dute. Ezarpen hori gidatu duten unibertsitateek enpresa-logika erreproduzitu dute beren ikuspegi pedagogikoetan.

Kritika sendoenak ereduaren izaera klasista azpimarratzen du: demokratizazio-erretorika baten pean, konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak desberdintasuna betikitzen du klase herrikoiei azaleko prestakuntza eskaintzean, eta eliteentzat jakintza konplexuetarako sarbidea mantentzen du, eskola-sistematik kanpo edo barruan.

9. KONSTRUKTIBISMOAREKIKO FILIAZIO FALTSUA

Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak hizkuntza konstruktibista bereganatzen du bere praktikak legitimatzeko, baina, egia esan, sakonki traizionatzen du. XX. mendeko pedagogoa aurrerakoiek



(Piaget, Vygotski edo Freinet kasu) ikaslearen oinarritutako hezkuntza defendatu zuten, bai, baina jakintza esanguratsuak, artikulatuak, zorrotzak, gizarte-elkarrekintzan eta hausnarketa kritikoan aktiboki eraikiz.

Aitzitik, konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamenduak “ikaslearen jarduera” edo “ikaskuntzaren zentzua” bezalako nozioak erabiltzen ditu sakontasunik eta jarraitutasunik gabeko atazak ezartzeko. Ez dago denborarik hausnartzeko, ez kontzeptualizatzeko, ez orokortzeko. Berehalako ekintza, ebazteko zeregina eta ikus daitekeen errendimendua pribatizatzen dira.

Eraitza pentsamendu pedagogiko kritikoa hustea da. Irakaskuntza zatikatua naturalizatzen da, elkarri gutxi lotutako proiektuekin, jakintza sendotzeko eta ulertzeko denborarik gabe. Jarduera konstruktiboa simulatzen da, baina gatazka kognitiboa, kontraesana eta elaborazio sinbolikoa ukatzen dira.

Pedagogia berritzaile baten itxurapean, ideologia funtzionalista bat ezkutatzen da, hezkuntza sistema ekonomikoaren zerbitzura jartzen duena. Ez da kasualitatea gaitasunak emaitzen arabera ebaluatzea, eta ez prozesuen arabera; sakoneko jakintzak kontsignarik ez izatea, baina bai kontsigna bat berehala gauzatzea. Hori da benetako konstruktibismoaren antitesia.

10. HEZKUNTZA ETA BORROKA POLITIKOA

Krisi anitzeko testinguru batean -ekonomikoa, ekologikoa, energetikoa, soziala-, hezkuntzaren funtzioa ezin da izan kaosera egokitzeko moduko gizabanakoak eratzea, baizik eta hura ulertzeko, kritikatzeko eta eraldatzeko gai diren subjektuak sortzea. Galdera erabakigarria ez da lehiakorra nola izan, baizik eta bizitza bera mehatxatzen duen sistema baten alternatibak nola eraiki.

Eskolak iruditeria neoliberalak hautsi eta bere funtzio emantzipatzailea berreskuratu behar du. Kontua ez da

merkatu prekarizatu baterako giza baliabideak prestatzea, baizik eta herritar askeak, ikasiak, solidarioak. Horretarako, ezinbestekoa da prestakuntza orokor zorrotza, artikulatua, humanista, kritikoa, politeknikoa eta unibertsala.

Gaitasunen araberrako ereduak ezin du hori eskaini. Aitzitik, obedienciazarako, malgutasunerako eta mendetasunerako entrenatzen du. Benetako hezkuntzak eduki zorrotzak eskatzen ditu, pentsamendu autonomoa, parte-hartze politikoa. Jakintzari bere leku nagusia itzuli behar zaio, ez tresna gisa, baizik eta ulertzeko eta askatzeko bide gisa.

Enplegarritasunaren diskurtsotik askatutako eskola batek bakarrik prestatu ahal izango ditu belaunaldi berriak datorren munduari aurre egiteko eta beste bat eraikitzeko. Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntza planteamendua tranpa bat da. Hortik ateratzea zeregin pedagogikoa da, bai, baina baita politikoa ere.

Marina Garcés: «Ikaskuntza egoerara moldatzeko malgutasunera murriztu nahi da»

Rodrigo Santodomingo
El Diario de la Educación, 2020/12/14

“Sakonean zibilizazio-krisia den hezkuntza-krisia estaltzen da, eztabaida metodologiara murriztuz eta besteekin harremanak nolakoak beharko luketen eta etorkizun partekatua irudikatzea eragotziz”

(Itzulpena: Manu Robles-Arangiz Fundazioa)

Sistemak pedagogia berritzailearen hizkuntza bereganatu duela salatzen duzu. Gattopardo operazioa dirudi, itxura aldatu denak berdin jarrai dezan.

Lehen kritika instituzionalari eta eraldaketa sozialeko esperientziei zegozkien kontzeptuak orain neoliberalismoak bereganatu ditu. Hierarkien aurkako borroka, zurruntasuna... Kapitalismo industrialarenak ziren logika horiek atzean geratu dira kapitalismo kognitiboan, malgutasunean eta etengabeko mugimenduan oinarritutako sistema den heinean. Horren ondorioa pedagogian zera da, garai batean iraultzaileak ziren praktika batzuen hizkuntzaren eta funtzionatzeko moduen zati bat eredu hegemonikoetara transferitu direla.

Berrikuntza aldaketa bizkorren sinonimo gisa aurkezten da, berrikuntza tekno-metodologikoz betea. Etengabeko mugimendu honek sakoneko galderei heltzea eragozten du, zuk plateatzen duzuna esaterako: nola izan nahi dugu heziak?

Diozuna arreta desbideratze bat da, neurri batean nahita sortua, merkatuek negozio-aukera bat ikusten dutelako eta, are gehiago, definitzeke dauden etorkizun horiek formateatzeko aukera ere ikusten dutelako, eta beste neurri batean gure garaiko noraezetik datorrena. Sakonean zibilizazio-krisia den hezkuntza-krisia estaltzen da, eztabaida metodologiara murriztuz eta besteekin harremanak nolakoak beharko luketen eta etorkizun partekatua



irudikatzea eragotziz. Eztabaida pedagogikoa azaleko errezeten arteko lehia eta gatazka bihurtu dugu.

Desorientazio horretan, esparru guztietan, baita hezkuntzan ere, mezu bat nagusitzen da: dena dela ulertzeko konplexuegia. Eta, edozein kasutan, azalpen posibleek iraungitze-data dutela.

Ziurgabetasuna onarturiko abiapuntutzat hartzen da. Dena da zalantzazkoa, konplexua, azkarregia... Eta gertatzen dena irakurtzeko eta errealtatea deszifratzeko tresnak bilatu beharrean, etsi egiten dugu etengabeko aldaketa horrentzat erabilgarriak izan daitezkeen erantzunak bilatzera eta helburu horretarako entrenatzera mugatzen gara. Errealitatea etengabeko aldaketa gisa ulertzeak balio, harreman, afektu eta asmoen definiziorik gabe uzten gaitu. Eta honek egoera ezberdinetara egokitze premia besterik ez duen hezkuntza dakar.

Eskolan, eraldaketa sakona bideragarria ez denaren ideia

nagusitzen da. Eta lortu dezakeguna, gehienez ere, zera dela: Iraungitzea eta ziurgabetasuna arau diren mundu batean, egoerara moldatzearen morrontza onartzea.

Egoera moldatzearen edo egokitzapenaren morrontza nozioa funtsezkoa da ulertzeko zergatik ez gauden obedientzia mekanikoko harremanetan. Egia da jarraibide zurrun batzuk mantentzen direla: ordutegiak, adin-tarteak... Baina garrantzitsuena da ikasteko dugun gaitasuna berehalako konponbideak lortu nahi dituen malgutasun kodifikatura murrizten saiatzen ari direla.

Ikaslearentzat oso mezu frustagarria da: dena aldatzen ari da, baina zuk ezin duzu ezer aldatu.

Duela pare bat urte batxilergoko ikasle batzuek galdetu zidaten: "Nola konprometitu gaitezke gure etorkizunarekin?". "Zuen orainarekin konprometituz" erantzun nien. Baina badirudi oraina deuseztatuta dagoela, igarobide bat besterik ez dela, paseko leku bat. Egoerara

moldatzeko jarduera horrek ez du aukerarik ematen orainaren eta etorkizunaren arteko kausazko harremana hautemateko, hain zuzen ere ziurtzat jotzen delako zuk ez duzula ezer eragingo: aldaketa horren funtzio bat zara, ez aldaketa horren eragile bat, ez subjektu politiko bat.

Malgutasunaren dogma, batez ere, enpleguaren munduari dagokionez planteatzen da: hezkuntza arrakastak bere errendimendua mugarik gabe hobetzeko egokitzen dakien langile bihurtzea esan nahi du. Eta hori lortzen ez duena, diozun bezala, hondakin bat izango da.

Tentsio dinamiko handia bi poloren artean gertatzen da: potentziala eta hondakina. Zure potentziala berritu, eguneratu eta maximizatu dezakezun bitartean balio duzu. Hori lortzetik zenbat eta urrunago egon -jatorriaren, klasearen, arrazaren, generoaren, adinaren eta abarren arabera-, orduan eta hondakinagoa zara. Gazte askok sentitzen dute lehen partida jokatzeko aukerarik ere ez dutela aukeren joko honetan.

“Egoerara moldatzeko jarduera horrek ez du aukerarik ematen orainaren eta etorkizunaren arteko kausazko harremana hautemateko, hain zuzen ere ziurtzat jotzen delako zuk ez duzula ezer eragingo: aldaketa horren funtzio bat zara, ez aldaketa horren eragile bat, ez subjektu politiko bat”

Emozioen inguruko heziketa programek egokitzapenaren morrontza hori bultzatu nahi dute? Horren modakoa den erresilientziaren ideia datorkit burura, sarritan egiten diguten guztia jasateko gaitasuna izatea aditzera ematen duena.

Begira, gure harremanetarako modua kolonizatzen duen enpresa-paradigma horren barruan, emozioak kudeatzeaz hitz egiten da. Emozioen kudeaketa maximizatzaile hori, ordea, oso urrun dago sentimenduak lantzen dituen hezkuntzatik, heziketa estetikutik, poetikutik, sentsibilitatearen heziketa integral batetik, sentsibilitate partekatutako esperientziekin lotzen gaituen hori bezala ulertuta.

Bitxia da nola nagusitu den iragankortasunaren ideia garai honetako funtsezko ezaugarri gisa. Gure aitona-amonak monarkia, errepublika, gerra, diktadura, berrikuntza teknologiko handiak, aldaketa kultural izugarriak... bizi izan zituzten. Baina haien zat, dirudienez, baliagarria zen bizitzeko egokitu zitzairen munduaren egonkortasuna islatzen zuen hezkuntza-sistema.

Harritu egiten nau, filosofo gisa eta belaunaldi desberdinetako pertsonen bizi den pertsona moduan, egonkortasunaren fikzio hori iragana definitzen zuen elementu gisa onartu izanak. Gure aitona-amonen bizitzeko egonkorretik ez zuten ezertxo ere izan, ez zentzu politikoan, ez materialean, ez sanitarioan, ez beste ezertan. Tranpa hori egia ukaezin gisa onartu dela ohartzean -inongo analisi enpirikori, ezta gure memoria kolektiboari ere erantzuten ez dihonean-, propagandak duen indarrak jabetzen naiz.

Zure liburuan aipatzen duzun beste perbertsio linguistiko bat da, gure kabuz pentsatzeko aukera ematen digun ezagutza kontzientea informazio hutsarekin nahastea. Memoriarekiko mespretxua kritikatzeko duzu, dena sarean dagoenaren aitzakiapean ezer ikasi behar ez denaren mezua. Orain, dirudienez, nahikoa da ikasten ikastea. Ustezko kompetentzia hori begi bistako tautologikotzat jotzen duzu.

Pedagogia emantzipatzailearen bideari berriro heltzen saiatu naiz. Pedagogia honen baitan hezteak ez da instruitze hutsa, ikasten duguna norberak pentsatu ahal izatea baizik. Ideia horretan sakontzen dut eta esanahi gehigarri bat ematen diot, esanez norberak pentsatu ahal izate hori besteekin egiten dela, beste mundu batzuetara irekitzen gaituen pentsamenduaren harreman izaera nabarmenduz. Orduan bihurtzen da ezagutza errealitatearen kontzientzia hartzeko aukera, eta hegoak ematen dizkigu zentzu emantzipatzaile batean: “bai”, “ez”, “honaino” esateko edo nola bizi eta hezi nahi dugun adierazteko. Galdera horiek ez dira mundutik kanpo eta besteen aurrean jarriz sortzen, harremanak leku komun bihurtu ahal izate baizik. Inor ez da existitzen bakarrik, ez dago kontzientziarik harremanik gabe. Hortik abiatuta, informazio-prozesu hutsen instrumentalizazioa ez den hezkuntza bat proposa dezakegu.

Ikaskuntzaren ildo sozializatzaile honetan Freire edo Vigotsky aipatzen dituzu.

Bi erreferente dira. Psikologia emantzipazio-praktikekin lotutako sozializazio-prozesu gisa ulertzen den heinean interesatzen zait, eta hori ezin da bereizi besteekiko harremanetan nor garen ondo ulertzetik. Nik horrela azaltzen dut, ezin dut saihestu [barre egiten du],



nahiko nahastuta eta akademiako diziplinatik urruntzen den erregistro eta hizkera hau erabiliz. “Escuela de aprendices” pedagogiatik soilik hitz egiten ez duen hezkuntzaren inguruko liburua da; filosofiaz ez da tradizio filosofikotik bakarrik hitz egiten; politikaz ez da errealitatearen azterketa soziopolitiko batetik bakarrik hitz egiten. Dena literaturaz trufatua, bizitzaren beraren dimentsio estetiko-poetikoaz bustia eta neure esperientzia pertsonalaz zipriztindua.

Zer ikasten du Marina Garcés bere ikasleengandik unibertsitateko irakasle gisa?

Mirespena eta jakin-mina pizten dizkirate. Oso gutxi ezagutzen eta ezagutuko ditudan pertsonak dira, gaur egun bere gogo eta denbora filosofia moduko zerbait ikasteko jartzen duten pertsonak. Bere arrazoietatik haratago doan misterioa da, erabaki horrek beraien bizitzetan eragin dezakeena... bizitza bakoitza gobernaezina eta aurreikus ezina baita. Niretzat irakaskuntza esparru abegikorra da eta ikuspegi horretatik irakasle hobea izaten laguntzen didate: tresnak eta ezagutzak ematen jakitea,

“Eskolan, eraldaketa sakona bideragarria ez denaren ideia nagusitzen da”

pentsamenduak partekatzea, beti ere lurralde berrietan erortzen utziz, bakoitzaren existentzian.

Botereak hezkuntzako diskurtso eraldatzailea bereganatu duenaren ideia bueltatuz, iruzurra kontrol, ebaluazio eta dena zenbatzearen ahalegin obsesibo horretan agertzen da. Hezkuntzan dagoen ustezko autoritate-krisiaren aurrean burokraziaren erraldoia hezkuntza-autoritate nagusitzat jotzen duzu.

Jakina, oraindik ere autoritatea dago hezkuntzan, baita autoritarismoa ere. Milimetrikoki kodetutako eta protokolizatutako funtzionamendu modu bat artikulatzen da ebaluazio, burokrazia eta kontuak ematearen inguruan. Sistema honek zigortzen du argi ez izatea zer gai ukituko duzun hemendik sei hilabetera talde batekin eta nola neurtuko dituzun emailtzak. Burokrazia ebaluatzaile horren mende, ikasleen arteko aliantza tarterik gabe geratzen da, irakasleen eta ikasleen arteko obedientziara mugatzen da. Oso zail egiten dira ezinbestekoak diren gauzak: arriskatzea, harrera ona egitea, elkar estimatzea, galdu ahal izatea... Zerbait ez jakiteko aukera!

“Eskola ez da burbuila bat, eta ez luke izan behar”

Desproporzioa onartzea, diozun bezala. Ez jakiten ikastea, gure txikitasunagatik jota ez geratzea eta gehiago jakin eta ulertu nahi izateko erabiltzea.

Dakigunaren kontzientzia izatea ezin da bereizi ez dakigunaren kontzientzia esnatzetik. Ez dago jakiterik ilunik ez duenik, ondoren bat izango ez duenik. Zer dago ez jakite horretan? Ikasteko behar ditugun hutsune guztiez beteta dago. Hezkuntzak zerikusi handiagoa du hutsuneak irekitzearekin hutsuneak betetzearekin baino. Agertze hau gerta dadin lagundu behar dugu, bilatzen. Baina gure kulturak legitimatu egiten du ezagutza metatzea, ezagutza hau informazio gisa ulertuta, eta hori ez da jakitea.

Ezagutza kontzientea garatzeak lasaitasuna, etenaldia eta hausnarketa eskatzen ditu. Baina teknologia digitalaren zati handi bat arreta iraunkorra bereganatzeko pentsatuta dago. Behar al dute eskolek eta beste hezkuntza-espazio batzuek une analogiko gehiago, dieta digital moduko zerbait?

Eskola ez da burbuila bat, eta ez luke izan behar. Alderantziz, gure gizarteko funtsezko gaiak ukitu, bizi, eztabaidatu behar ditu. Baina mundu digitalarekiko harreman emantzipatzailea bultzatu behar du. Horrek ez dakit teknologia gehiago edo gutxiago dakarren, baina bai haren inguruko kritika eta kontzientzia handiagoa. Batez ere, teknologia eta berrikuntza merkatu akritiko bihurtzen direnean, Google eta beste lau enpresen lau aplikazioen sinonimo, korporazioen irabazi pribatuari begira modu ilunean eraikitako tresnak, alegia. Hezkuntza teknologiko on batek zalantzan jartzen du norekin lan egiten dugun, nola, zertarako.

Dirudienez, konpainia handien produktu distiratsuak gero eta eremu handiagoa hartzen ari dira, ikusgarritasunari dagokionez behintzat, Interneten dauden baina asko diseinu eta promozio-gaitasun apalagoa duten irakaskuntza-trukerako espazio ugarietako.

Presioa izugarria da tresna jakin batzuk eskura ditzazun, egiten ez baduzu zu edo zure hezkuntza-ingurunea behar bezala eguneratuta egongo ez denaren xantaiapean. Honi gehitzen zaio, etengabe kontuak emateko beharra, eta horrek oso tentagarria egiten du dagoeneko eraikita dagoen pack bat izatea, nahiz eta, horretarako, alde batera utzi behar dugun irakaskuntzaren dimentsio experimental, sortzaile eta kolaboratibo hori.

Oso kritiko agertzen zara hezkuntzara aplikatutako neurozientziaren modarekin. Batez ere, produktibitatea hobetzeko gure trebetasun kognitiboak optimizatzen soilik bideratzen denean, ikaslea baliabide deshumanizatu bihurtuz.

Arazoa ez da neurozientzia bera, baizik eta autore batzuek neurozentrismoa deitzen dutena. Hau da, gure esperientziaren edozein azalpen garunaren ideia oso zehatz eta itxi batera murriztea: optimizazio-gailu bat, diozun bezala, gure baliabideak modu mugagabea handitzeko potentzial bihurtzeko gai dena. Ikerketari esker, garunak plastikotasuna duela, ez dela kode programatu eta aldaezina jakitea oso interesgarria da subjektu askeago eta irekiago gisa pentsatzeko. Baina kapitalismo kognitiboak plastikotasun hori ezarritako baldintzetara egokitzeak mugatasunera mugatu nahi du -Catherine Malabou filosofo frantsesak ongi azaltzen duen bezala-.

ARGITARATUTAKOAK

- 18 **PROPUESTAS PARA UN NUEVO ESCENARIO. UNA SÍNTESIS DESDE LA MILITANCIA SINDICAL.** 1999. URRIA
- 19 **CRECE LA CONTESTACIÓN CONTRA LA GLOBALIZACIÓN NEOLIBERAL.** 2000. MAIATZA
- 20 **JOAQUÍN NAVARRO ESTEBAN: UNA VISIÓN INDEPENDIENTE DEL PROBLEMA VASCO.** 2000. URRIA
- 21 **FORO SOCIAL MUNDIAL: PORTO ALEGRE BESTELAKO MUNDUA POSIBLE DA.** 2001. APIRILA
- 22 **DESDE PORTO ALEGRE A FLORENCIA PASANDO POR BARCELONA.** 2002. AZAROA
- 23 **EGUNKARIAREN ITXIERA. EUSKALGINTZAREN ETA EUSKALZALEEN AURKAKO OPERAZIOA.** 2003. EKAINA
- 24 **NEW ORLEANS: IRAGARRITAKO HONDAMENDIA. LA CATÁSTROFE NEOLIBERAL.** 2005. URRIA
- 25 **FRANTZIAKO ISTILUAK. EL NOVIEMBRE FRANCÉS.** 2006. URTARRILA
- 26 **MUNDUKO MERKATARITZA ERAKUNDEA: ESKUBIDEAK SALGAI.** 2006. APIRILA
- 27 **IRAILAREN 11, ESKUBIDEAK PIKUTARA? DERECHOS EN JAQUE. LA FIN DES DROITS?** 2006. AZAROA
- 28 **NON AU CPE: UN AN DÉJÀ.**
- 29 **XXI. MENDEKO SINDIKALISMOA. SINDICALISMO DEL SIGLO XXI.**
- 30 **BESTELAKO SINDIKALISMO BATI BURUZKO MINTEGI BATEN KRONIKA.** 2007. ABENDUA
- 31 **KAPITALISMOA EROTU AL DA?** 2008. MAIATZA
- 32 **MERKATARIEN EUROPA HONETAN, SINDIKALGINTZA KINKA LARRIAN.** 2008. EKAINA
- 33 **ASKATASUN SINDIKALARI BURUZKO MINTEGI BATEN KRONIKA.** 2008. IRAILA
- 34 **EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA.** 2008. ABENDUA
- 35 **KRISIA ETA LANGILERIA. ERANTZUTEN BEHARRA.** 2009. APIRILA
- 36 **KRISIA IRITENBIDEAK ETA ERANTZUN SINDIKALA.** 2009. AZAROA
- 37 **ETORKINEN PATUA (HIPO)KRISIAK JOTAKO EGUNOTAN.** 2010. APIRILA
- 38 **FINANTZA MERKATUEN ESTATU-KOLPEA. GOLPE DE ESTADO AL BIENESTAR.** 2010. JUNIO
- 39 **PLAN DE ESTABILIDAD Y RECORTES SOCIALES EN EUROPA.** 2010. NOVIEMBRE
- 40 **LA CRISIS QUE NO CESA.** 2011. FEBRERO
- 41 **GURE INDARRA, GUZTION BABESA.** 2011. MAIATZA
- 42 **RENOVACIÓN SINDICAL.** 2011. ABENDUA
- 43 **FINANTZEN DIKTADURATIK DEMOKRAZIARA.** 2012. APIRILA
- 44 **ZORRA XANTAI GISA. AUDITORÍA DE DEUDA Y ALTERNATIVAS A LAS POLÍTICAS DE AJUSTE.** 2012. IRAILA
- 45 **NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA LAN ERREFORMA GARAIA. EJEMPLOS DE LUCHAS.** 2013. MAIATZA
- 46 **LA VIA CATALANA. CAP A LA INDEPENDÈNCIA.** 2013. URRIA
- 47 **ERASOAK ORDEZKARITZA KOLEKTIBOARI. INNOVACIÓN SINDICAL.** 2014. URRIA
- 48 **BURUJABETZA. CUESTIÓN SOCIAL Y CUESTIÓN NACIONAL.** 2015. APIRILA
- 49 **EUSKAL HERRIKO ZERGA SISTEMA. ALTERNATIVAS FISCALES.** 2015. IRAILA
- 50 **IDENTITATEA, DEMOKRAZIA, ONGIZATEA...** 2016. MAIATZA
- 51 **BURUJABETZARA BIDEAN. SOBERANÍA NACIONAL Y CUESTIÓN SOCIAL.** 2016. IRAILA
- 52 **LANGILE KLASEA ETA ALTERNATIBEN SAREA.** 2016. ABENDUA
- 53 **EUROPA: KRISIA ETA ALTERNATIBAK.** 2017. IRAILA
- 54 **GLOBALIZAZIOA, LANA ETA BOTERE SINDIKALA.** 2017. ABENDUA
- 55 **BURUJABETZA GORPUZTEN DUTEN ADIBIDEAK.** 2018. IRAILA
- 56 **FAXISMO ETA AUTORITARISMOEN BERPIZTEA.** 2019. APIRILA
- 57 **PREKARITATE MOTA BERRIAK ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA.** 2019. URRIA
- 58 **EKONOMIAREN DIGITALIZAZIOA ETA ROBOTIZAZIOA: MEHATXUA AUKERA NOLA BIHURTU.** 2019. AZAROA
- 59 **HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA: JARDUNALDI BATEN APUNTEAK.** 2023. URRIA
- 60 **LAN MUNDUA ETA SINDIKALISMOA IKERTZEN.** 2024. MAIATZA
- 61 **MIGRAZIOA ETA PREKARIETATEA.** 2024. MAIATZA

